

Carlo Petrini

Slow Food mugimenduaren sortzailea

**«Kontsumitzaile beharrean
koproductore izatea
ardura gure gain hartzea da»**

- **Paul Bilbao**, Kontseiluko idazkari nagusia «Seguru nago badatorrela gaztelaniaren legea»
- **Irakurmena** Matematika irakasleak ere irakurtzen irakatsi behar du
- **Larrun** Helduen euskalduntze eta alfabetatzea
- **Net Hurbil** Elkartasunean bizirauteko ahaleginak ugaritzen ari dira Grezian
- **Green Capital** Marketina gailendu zaio ingurumen politikari



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 100 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko erreboltak
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Garrasia Saharatik
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisia. 20 urte desobeditzen

Iparralde XXI
Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarría
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

**EGUZKI
BIDEOAK**

elkarlanean





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irueta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko abenduaren 30a, 2.351. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

JEAN HARITSCHELHAR: «Mandomulen aurka balio duen politika bakarra mandomula izatea da». SUSTRAI COLINA / 4

ASTEKO GAIA

IRAKURKETA ULERKORRA Testuak interpretatzen ikasteko gakoak. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 6

PERTSONAIA

CARLO PETRINI: «Jatea aukera politiko bat da». S. COLINA / 12

GAIK

BAUEN HOTELA Nagusirik ez duen ostatu asanblearioa. SUB ARGAZKILARI KOOPERATIBA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

GOBERNU BERRIA, GARAI BERRIRAKO GARBINE BIURRUN / 22
DESMOND TUTU IÑAKI MENDIGUREN / 24

LEGEEZ HARAGO, MENTALITATEAN ERAGIN AMAIA FONTAG / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

BERTSO BERRIAK Extrari jarriak. AITOR SARRIEGI / 25

ERDIKO KAIERA

JOXE AGIRREAREN HERIOTZEAN Bertsolariek Bertsolariari.

I. LAZKANO, A. ARZALLUS, A. EGAÑA, J. M. IRAZU, I. MURUA / 26

ITSASO GUTIERREZ, ON TALDEKO ABESLARIA: «Inguruko hainbatek ez du sentitzen matxismorik badenik, eta uko horrek mindu egiten nau». IRATXE ESNAOLA / 30

LITERATURA X. ETXANIZ / 32 **MUSIKA** M. AUZMENDI / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Demokraziaren disfuntzioez, mugez, bakeaz, arteaz. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

GASTEIZ, GREEN CAPITAL Alferrik galdutako urtea. U. BREA / 39

PAUL BILBAO: «Esaten da Euskal Herria aro berri batean sartu dela, baina euskararena denek ahaztu dute». O. IURETA / 42

LUIS IRIONDO: «Eztanda entzun orduko haize beroak lantzantzen gintuen». IRATI SARASUA ARABOLAZA / 46

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL Greziarrak berotzeko mendiko egurra eta elkartasuna. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Urtarrilaren 13an itzuliko gara.

Aurreko zenbakian (2350) Arantzazu Royo itzultzaileari egin zion elkarriketa Miel. A. Elustondok, eta ez Agurtzane Royori. Izena gaizki idatzita argitaratu genuen Kaiera sailan. Barka biezagu Arantzazu Royok, egindako okerragatik.

JEAN HARITSCHELHAR

Unibertsitateko irakasle, Baigorriko auzapez, Baionako euskal museoko zuzendari, 50 urte Euskaltzaindian... Bizitza bete bat.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Gaizka Iroz

«Mandomulen aurka balio duen politika bakarra mandomula izatea da»

Sorterriko auzapeza izatea ez omen da lagunak egiteko modu onena...

Zure usteekin koherentea bazara ez duzu lagunak galtzen. Zure usteekin koherente jokatzegatik haserretzen zaizuna ez da laguna. Hori bai, nor bere lurretan profeta izatea...

Orain 50 urte Euskaltzaindian sartzeko profeta baino gehiago izan behar zen!

1968ko Parisko maiatza famatzen du jendeak, nik 1968ko Arantzazuko biltzarra. Hor sortu zen euskara batua, hortik datoz gure lan ildoak. Ordura arte, “eta zuek nola erraiten duzue hori?” zen Euskaltzaindian entzuten nuen galdera bakarra!

Euskaltzaindia euskararen aitzinetik edo gibeletik doa?

Momentuz aitzinetik gabiltza, etengabe bideak irekitzen. Sortzen ari den euskara batua euskara idatzia da, eta ahozkoa zein idatzia erabat sortzean, beste akademiek egiten dutena egin beharko du Euskaltzaindiak: hizkuntzaren aldakortasunari segi eta txertatu.

Ez esan bitartean Euskaltzaindiak hitzak sortu behar dituenik!

Zenbat hitz sortu ditu Euskaltzaindiak? “Arartekoa”, “a bildua” eta gutti gehiago. Hitz berriak euskara erabiltzen dituztenek sortzen dituzte heien beharrak asetzeko, eta akademiak onespina ematen die edo ez. Hori da



hizkuntza osoki tinkatua den seinale. Nik ez dut hori ikusiko, baina helduko gara horra ere.

Ofizialtasunak salbatuko gaituela diote euskaraz bihirik ez dakiten iparraldeko “euskualdu-nek”!

Ez dugu euskararen ofizialtasunik berehalakoan lortuko. Hain dira mandomulak gure jakobinoak! Heien psikologiak frantsesa, frantsesa, eta frantsesa baizik ez du onartzen. Nola konprenitu bertzela halako euskarafobia eta erraiten dituzten astakeriak?

Nik uste nuen zerbait mugitzen ari zela, baina...

Mandomulen aurka balio duen politika bakarra mandomula izatea da! Beharrik, gu ere horretan ez garen txarrak...

Ez gaude etengabe gure dekadentziaren gorean bizitzera kondenatuak, beraz?

Hiru lema ditut bizitzan. Bat, “euskalduna naiz sortzez, frantsesa legeez, eta europarra ametsez”. Bi, “gauden gu eta jo aitzina!”. Hiru, “jasan, baina iraun”. Hor dira gure arazoak erantzun guziak.

Orain, euskara salbatu eta Arestik bizarra moztu beharko duela esaten ari zara?


Zaude segur euskarak iraunen duela. Hori bai, euskara ofiziala izateak ez du arriskuan ez dela erran nahi. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Testuak interpretatzen ikasteko gakoak

Irakurtzen ongi dakiena aise moldatuko da eskolan, eta lerroartean herren dabilena trakets. Irakasleak ohartu dira eskolan irakurle konpetenteak lortzeko gela barruko jarduna aldatu behar dutenaz. Salamancako (Espainia) Emilio Sánchez katedradunaren pausoak jarraitzen dituzte hobekuntza bilatzen dutenek.

Testuak eta argazkiak:

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

IRAKURMENA da ongi ikasteko oinarritzko gaitasuna. Lotura zuzena dago irakurtzen eta idazten trebea izatearen eta eskola arrakastaren artean (eta alderantziz, irakurmen eskasaren eta porrotaren artean). Hau horrela da ez hizkuntza eta literatura gaietan soilik, baita zientzietan ere. Ikus Lavoisierrek 1789an Kimikako Oinarritzko Tratatuan idatzia: “Nola hitzak diren ideiak transmititzen dituztenak, ezin da hizkuntza findu zientzia findu gabe, ezta ere zientzia hizkuntzarik gabe; gertakizunak oso egiazkoak izanik ere, eta hauek eragin zituzten ideiak oso justuak izanagatik, inpresio faltsuak baino ez genituzke transmitituko izendatzeko adierazpide zehatzik ez bagenu”.

Irakurmenaren garrantzia islatzeko adibide aproposa jarri digu Josune Erkiziak, Lasarteko Berritzeguneko Ikasteko Irakurri mintegiko arduradunak: “Diagnosi ebaluaketetan ere ikusten da, konpetentzia guztiak iragazten dira irakurketaren filtrotik. Adibidez, hiritartasuna. Pertsona baten hiritartasun gaitasuna neur dezakegu froga askoren bidez. Baina nola pasa DBH2. mailako guztiei froga hori? Irakurketa-

ren bidez. Irakurketa da galbahea, eta hor ongi ez dabilenak ez daki ongi erantzuten, nahiz hiritartasun gaitasun handia izan”.

Irakurmenean herren

Irakurmenak berebiziko garrantzia badu, nola dabilta ikasleak gaitasun horretan? Nazioartean DBHko ikasle denei egiten zaion PISA azterketek neurtzen dute irakurketa konpetentzia. PISAk horrela definitzen du irakurmena: “Irakurleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko eta aztertzeko duen gaitasuna da”. Gema Lasarte Magisteritzako irakaslea da EHUko Gasteizko campusean. Literatur kritikaria ere bada, eta irakurketa nola hobetu du aztergaietako bat. Bera ados dago PISA frogak eskatzen duenarekin: “PISAn eskatzen dute benetan irakurketa konpetente bat dena. Baina eskatzen diegun hori ez diegu irakasten”. Berritzegunean ere PISAko definizioa dute oinarri, Josune Erkiziak kontatzen duenez: “PISAk gradazio bat egiten du eta esaten du irakurle gaitu batek informazioa aukeratu, interpretatu eta analisi kritikoa egiteko gai izan behar duela. Horren guztiaren azpian gauza asko dago”.

2013ko abenduan argitaratuko dira aurtengo PISAko datuak, eta bitartean dauzkagun azkenak 2009koak dira. Horien arabera, Nafarroak 497 puntu ateratu zituen eta EAEk 494. Espainiako Estatuko batz-bestekoaren gainetik (481 puntu), baina zerrendaburu den Finlandiatik oso behera (536 puntu). Josune Erkiziak kontatzen duenez: “PISA-rekin eta antzerako frogan emaitzekin ikusten da irakurmena hobetu beharra dagoela. Irakasleek formazioa eskatzen zuten eta

“Zerbait irakurri dugunean irakasleak laburpentxo bat egin behar du. Beti. Horrela, ikasleak ohartzen dira irakurtzen dugun guztiak duela ondorio bat. Unea iritsiko da laburpena ikasleek egingo dutena. Baina hori prozesu luzea da, ez da egun batetik bestera egiren”

Josune Erkizia



Irakurritakoa “ulertzeak” esan nahi du testuko informazio guztitik irizpide batzuen arabera hautaketa egin dugula, hautatutako informazio hori antolatu dugula eta txertatu egin dugula lehendik genituen jakintzetan.

Emilio Sánchez Salamancako katedradunak formakuntza sistematizatuta zeukanez, berarekin harremanetan jarri ginen eta hiru urte daramatzagu Berritzegunean formakuntza eskaintzen”. Hiru urtean bailarako 17 ikastetxerekin landu dute irakurketa ulerkorra eta pozik daude emaitzekin: “Irakasle horiek beren praktika hobetzen ari direla ikusten dugu”.

Irakurketa ulerkorra lantzeko ez da baliabide eta denbora gehiago behar

Emilio Sánchez eta taldearen artikulua irakurrita (Interneten eskuratuko duzu, *Un protocolo para Observar cómo los Profesores Ayudan a sus Alumnos cuando Leen Textos en el Aula*) jabetuko gara irakurmena lantzeko sekretuaz. Zorionez, ez da baliabide eta denbora gehiago behar, klasean berez egiten den irakurketa kontzienteki lantzea da gakoa. Erkiziak azaldu digune, “abiapuntua horixe da, irakasleak

jakin behar du zer eratako praktika egiten duen klasean. Kontzientzia hartu behar du. Horretarako parean mailaketa bat behar du, bikaintasuna non dagoen eta zer maila dau den azaltzen duena. ‘Ni non nago? Hementxe, haxe da nik egiten dudana’. ‘Hurrengo pausoa zein da?’ Haxe, eta bidea jartzen diogu pauso hori nola eman azaltzeko”. Formazio ikastaroan eskolako eguneroko dinamika erantzuna ematen zaio: “Ez gara ari irakurzaletasuna sustatzeaz, literatura mundua eragiteaz. Guk lantzen dugun esparrua ikasteko irakurtzea da. Ikasleak ezagutza iturriaz jabetzea. Irakasleak unitate didaktikoak erabiltzen ditu ezagutza transmititzeko. Gure formakuntza horretara mugatzen da, unitate didaktikoetan irakurketa nola landu aztertzea. Unitate didaktiko horiek edo proiektu horiek aurrera eramateko betidanik beharrezkoa izan da irakurtzea. Irakurketa horiek nola kudeatu?”.



Lau oinarriak

Erkiziak formazio saioetan lantzen dituzten lau oinarriak honela azaldu ditu: “Irakasleak irakurketa planifikatu egin behar du, pentsatu behar du irakurri aurretik zer mezu ematen dizkien ikasleei. Irakurtzen ari diren bitartean nola lagundu landu behar du. Ebaluatzeak garaian nola galdetu aztertu behar du. Eta bukaeran irakurketa horiek nola itxi ikasi behar du”.

Banaka aztertuko ditugu. Planifikatzerakoan, Erkiziaren hitzetan, “irakaslea da motibazioa lortuko duena. Irakurragia ongi aurkezten badu, zertarako irakurri behar dugun eta zergatik zehazki testu hau azaltzen badu, motibagarriago egingo du irakurketa”. Planifikazio garaian ikasleengandik espero dena argi uztea ere oso garrantzitsua da: “Irakasle batek, besterik gabe esan dezake: ‘Hor daukazu, hasi irakurtzen testua’. Ez du esan zertan nahi duen arreta jartzea, zer helbururekin irakurri behar dugun, edo zer egin behar dugun gero irakurketa horrekin, eta ikaslea hasten da irakurtzen dena buruan eduki nahian. Egoera horretan ikaslea oso galduta dago”. Hasieratik helburuak garbi dituen ikaslea, berriz, autoiketa lantzen iristen da. Alegia, “ikasleak irakurri bitartean jakingo du ea helburuetara iristeko moduan den edo ez, bada ki ulertu duen edo berriro irakurri behar duen testua, edo zertan eskatu behar duen laguntza... Bere buruaren jabe egiten da. Autoiketa oso puntu garrantzitsua da edozein ikaskuntza prozesutan”.

Irakurri bitartean irakasleak ematen duen laguntza izan daiteke erregulatzailea edo inbasiboa. Erregulatzailea da, adibidez, ordu-ra arte ikasitakoa laburtu eta hurrengo galdera planteatzea, edo helburua zein den gogo-

Josune Erkizia,
ezkerreko irudian.
Lasarteko
Berritzegunean
Ikasteko Irakurri
mintegiko
arduraduna da.
Eskuineko irudian,
Gema Lasarte,
Gasteizko
Magisteritzako
irakaslea.

ratu eta galdera jaulkitzea, edo erantzuna bilatzeko moduren bat proposatzea... Inbasiboa, berriz, zuzenean erantzuna ematea edo bi erantzun aukeran jartzea. Laguntza erregulatzaileek gehiago irakasten dute, eta ikasleak aktiboki hartzen du parte prozesuan.

Ebaluatzeak orduan, kontuan hartu behar da irakurritakoa “ulertzeak” zera esan nahi duela, testuko informazio guztitik irizpide batzuen arabera hautaketa egin dugula, hautatutako informazio hori antolatu dugula eta txertatu egin dugula lehendik genituen jakintzetan. Hau horrela izanik, ebaluatzerakoan kontuan hartu behar da ea benetan garrantzizkoa dena galdetzen den edo dena izan daitekeen galdetua.

Eta itxiera da Erkiziak asko azpimarratzen duen zutabea: “Zerbait irakurri dugunean irakasleak laburpentxo bat egin behar du. Beti. Horrela, ikasleak ohartzen dira irakurtzen dugun guztiak duela ondorio bat. Eta bukaera izango da irakasleak planifikazioan markatu duena, irakurri aurretik ikasleari arreta zertan jarri eskatu dion hori. Bukaera ondorioak ateratzera ohitzen badira, unea iritsiko da irakasleek egin ordez ikasleek egingo dutena. Baina hori prozesu luzea da, ez da egun batetik bestera egiten”. Gaineratu duenez: “begira zer ikasi dugun, hau eta hau; eta zertarako? honetarako eta honetarako”; itxiera horrekin zentzua hartzen du ikasi dugunak”. Itxierak badu beste funtzio bat, irakurmenean herren dabilatzan ere ikastea: “Gaitasun handiagoa dutenek berehala harapatzen dute ondorioa, baina gaitasunik ez dutenek ez. Horrekin ziurtatzen duzu irakurtzeko eta interpretatzeko halako gaitasunik ez dutenei, behintzat laburpen horretan zerbait geratuko zaiela”.

Agerian geratu denez, irakaslea da irakurmena lantzeko klabea. Irakaslea da irakurketa esanguratsua egiten duena, irakurtzeari zentzua ematen diona. Horretan bat datoz Erkizia eta Lasarte. Erkiziaren esanetan, “irakasleak, eredu izanez, moldatu egiten ditu ohiturak. Irakasleak ez du azaltzen testuaren edukia zein den, baina ikasleen arreta bideratzen du, berak azpimarratzen du momentuoro inportantea zer den”. Lasartek irakasleen beraien gaitasunaz galdetu du, ordea: “Kontua da guri Irakasle eskolara jendea irakurtzen eta idazten jakin gabe iristen zaigula. Irakaslea, lehenik bera da irakurri behar duena. Egunerok!”.

Nork heldu behar dio gaiari adarretatik?

Eskolako curriculumak zeharlerrotzat dauka irakurmena. Josune Erkiziak dioenez, “ondo jarrita dago, gaitasun bezala, bere azpi gaitasunekin eta zeharkakoa da. Ez da berariaz hizkuntza arloko gai bat, edozein arlo ikasteko irakurri beharra daukagu, pentsa historian eta natur zientzietan zenbat irakurri behar den! Irakasle horiek gaituta egon behar dute irakurketa ongi

kudeatzeko. Formatu egin behar da horretarako, eta ez dakit irakasle eskolan nahiko formazio eskaintzen den”. Gema Lasartek ere unibertsitatean irakasleak formatzerakoan irakurmena indartu beharra ikusten du: “Irakasleen forma-


kuntzan pisu handiagoa beharko luke irakurmenak, goitik behera markatuta eta ez borondatez formazio ikastarotan izen ematera mugatu. Irakasle eskolan askotan esaten dugu, Magisteritzan ikasgai bat izan behar du”.

Beraz, curriculumak zeharlerrotzat dauka, baina Magisteritza eskolan berariazko formakuntzarik jasotzen ez denez, orokortuz esan daiteke eskoletan irakurmena ia

hizkuntza eta literatura klaseetan bakarrik lantzen dela. Josune Erkiziak formazio saioetan ikusi du arazo hau: “Lehen Hezkuntzatik datozen irakasleekin abantaila bat daukagu, bakoitzak hainbat arlo gidatzen dituela. Baina Bigarren Hezkuntzatik datozen irakasle ia denak hizkuntzakoak dira. Muga edo horma hori haustea oso zaila da, badirudi irakurketa hizkuntza irakasleen gauza dela, eta hor badugu irabazi beharreko eremua”. Gema

“Jendarteak irakurketaren kultura indartu behar du. Irakurtzen dakienak mundua interpretatzen daki. Gaurko gizartean jasaten dugun informazio anabasaren aurrean galbahea ematen dizu, zure iritzia garatu dezakezu”

Gema Lasarte



irakurri 4
aldiz ARINAGO

prakagorri.es
944 91 57 63

Harritu zaitez emaitzekin!

Hobe itzazu zure irakurketa-abiada eta ulermena!
Errotik aldatuko dituzu zure irakurketa-gaitasunak
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina

9 urtetik aurrera adin mugarik gabe, prakagorri duzu zure eta zure semeen irtenbide.

Dei iezaguzu edota sar zaitez prakagorri.es webgunean.



Ikasleak irakurri aurretik jakin behar du zein den irakurketaren helburua, irakurtzerakoan zertan jarri behar duen arreta. Galduta dago bestela. Irakaslea da irakurri aurretik hasi eta ondorioekin bukatu arte ikasleen arreta gidatu behar duena.

Lasartek ere salatzen du akats hori: “Irakurketa ez da hizkuntza eta literaturako ikasgai bat bakarrik, pentsamendu logikoa matematikarena bakarrik ez den bezala. Matematikako edo kimikako irakaslea, denak dira irakurketa gaitasunen irakasle”.

Lasartek azaldu duenez, gainera, ikasleentzat zailtasun handiena duten testu generoak ez dira hizkuntza eta literatura ikasgaietakoak: “Haur Hezkuntzan hasten dira irakurketarekin, eta nik uste oso ondo doala, ahozko literaturari lotua. Lehen Hezkuntzan narrazioak irakurriz hasten dira, eta ongi jarraitzen du kontuak. Zergatik ez dute arazorik narrazioekin? Bizitzan ere denbora osoa narratzen pasatzen dugulako, gauzak kontatzen ditugulako.

Baina testu informatiboekin hasten garenan datoz komeriak. Zergatik? Azalpen testua zailagoa da, jakintza berri asko ematen du, eguneroko bizitzan oso gutxitan ematen ditugu azalpen erabat berriak... Hor lagundu behar zaio ikasleari, baina non daude azalpen testuak? Literaturako ikasgaien? Hain juxtu zientzietan. Kimikako testu batekin arazoa duenean hor behar du laguntza”.

Eskolak kompetentzia, etxeak zaletasuna

Gema Lasartek etxeak eta eskolak elkar lagundu behar dutela gogoratu digu: “Esko-

laren funtzioa da irakurle kompetenteak lortzea. Eta jendartearen eta familiaren zeregina da irakurzaletasuna bultzatzea eta balioa ematea. Bietan gaude galduak, eskolak ez ditu kompetenteak egiten eta gizartean irakurtzea gaizki ikusia dago, lotsagarri”. Ganoraz irakurtzeak kriterioak ematen dizkigula ondorioztatu du: “Jendarteak, familiak, kultura hori, balore hori indartu behar dugu. Irakurtzen dakienak mundua interpretatzen daki, bere burua ezagutzen, baditu arma batzuk. Gaurko gizartean jasaten dugun informazio anabasaran aurrean galbahea ematen dizu kultura horrek, zure iritzia garatu dezakezu”.

Erkiziak literatur tertuliak eta irakurketa dialogikoak (guraso, ikasle eta irakasleak elkartu ditzakeenak) gomendatu ditu: “Tertulia horiek besteen beharraz jabetzen gaituzte. Azpiko mezua da ikasteko eskola ez dela nahikoa, komunitate osoaren beharra dagoela. Konpartitzen dugun unetik zentzu bat hartzen du irakurketak, eraiki egiten dut irakurketa eta iristen naiz nire burua bera bakarrik iritsi ez den leku batera. Irakurketatik harago doa, ahozko adierazpenak sekulako indarra du, iritziak eman behar ditugu eta mintzamena garatzeko modua da”. ■



argia 2013ko egutegia

ARGIA astekariko pasarteak

- Zientzia
- Deabruaren abokatua
- Denboraren makina
- Txisteak
- Bertsoak

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

ARGIAko eskaintza bereziak

EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
opari

EGUTEGIA

9€

BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

Salgai
dagoeneko!

CARLO PETRINI

«Jatea aukera politiko bat da»

Italiarrek hitzak eta pasta beti *al dente*.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

“Ona, garbia eta justua” jateko eskubidea aldarrikatzen duzu.

Garai nahasi hauetan elikagaien kalitatea parametro horietan neurtzen delako. Gastronomiaren historian gizakiak ekoizpen ona askietsi du, baina gaur egun, ingurunea eta justizia soziala aintzat hartu ezean ez dago kalitatezko elikadurarik. Kontsumitzaile pasiboak izan beharrean hiritar informatuak izatea dagokigu. Gure lana da erosten dugun produktu orotan hiru irizpide horiek betetzen direla bermatzea. Horregatik “kontsumitzaile” hitza baino askoz egokiagoa iruditzen zait koproduktore kontzeptua. Koproduktore izatea ardura gure gain hartzea da: nekazaritzaren errealitatea eta jatera goazenaren ekoizpena ezagutzea, laboraria duin bizi ahal izateko prezio bat ordaintzea, eta mozkin horren ekoizpen kateak ingurumena kaltetzen ez duela ziurtatzea. Bestela oso erraza da, biziki produktu onak ekoitzi daitezke intentsiboki, baina zertan ari gara horren izenean ura alferrik galtzen, biodibertsitatea txikitzen eta lurrak antzutzen baditugu? Datozen belaunaldienganako injustizia bat egiten ari gara. Horren ondorioak ez ditugu guk ordainduko, gure osteko belaunaldiak baizik, eta martxa honetan, ez dute guk kausitu genuen ondare alimentariarik aurkituko. Ardura kontua da, besterik ez.

Mundua gobernatzen dutenei alferrik esango diezu lurra ez dela arbasoengandik herentzian jasoa, oinordekoei mailegatua baizik.

Mark Magandi-k dio lurrak eta lurraren baliabideak denontzat beharko luketela, baina hortik gutxi batzuek baino ez dutela jaten. Baliabide horiek denon eskura jartzean datza gure borroka. Datuek ez dute gezurrik

esaten. Munduan 7.000 milioi pertsona izaki, 12.000 milioientzako beste ekoizten dugu, eta hala ere, 1.000 milioi gosez hiltzen dira. Egoera tragikoa da. Gosetearen sentiberatasuna eta oroitzapena galdu duen gizarte bat gara. Gure arbasoek, zinezko gosea pasa zutenek, askoz begirune handiagoa diote janariari. Guri ez zaigu piperrik ardura munduko herrialde anitzetan haurrak gosez hiltzea edo komunitate askok lurra lantzeko arazo larriak izatea. Nola esplikatuta bestela urtero europar bakoitzari 320 kilo janari sobratzen zaizkiola eta zakarretara botatzen dituela? Ez da justua.

Industria kimikoak mundua elikatzeko manera bakarra laborantza intentsiboa dela aldarrikatzen segitzen du, ordea.

Paradigma janaria oso kostu txikian ekoiztea denez, produkzio intentsiboa ezinbestekotzat agertzen digute. Baina produkzio intentsiboki bost axola zaio ingurunea errespetatzen duen, lurrak antzutzen dituen, ura neurritz kanpo erabiltzen duen edo biodibertsitatea xehatzen ari den. Laborantza intentsiboa unean-unean bizi da, eta ardura zaion bakarra

NORTASUN AGIRIA

Carlo Petrini. 1949ko ekainaren 22an Bra-n (Italian) sortu zen kazetari, soziologo, eta kritiko gastronomikoa, Slow Food fundazioaren (www.slowfoodfoundation.com) sortzaile eta buru izateagatik da ezaguna. 2004an, Turinen, Terra Madre nazioarteko sarea abiarazi zuen 150 herrialdetako 8.000 ekoizle bilduz. 2008an, *The Guardian* egunkariak planeta salbatzeko gai diren 50 pertsonalitateen zerrendan sartu zuen.



CARLO PETRINI

mozkinak ahal bezain merke saltzea da patrikak ahal bezainbat betetzeko. Paradigma horrek horma jo du, alta. Bete-betea harpatu gaituen krisi entropiko honetan, mundu guztia dago hausnartzera derrigortuta. Lurra-
ren baliabideak ez dira agorrezinak, eta gu agortzeko zorian gaude. Jasangarritasunean iraunen duen mundua nahi badugu praktika horiek iraganekoak izan behar dute.

Zer diozu pestizidek eta jitez aldatutako organismoek minbizia eragiten dutela dioten azken ikerketez?

Oso ikerketa serioak dira, benetan aintzat hartu beharrekoak. Gurea bezalako elkarrekin, eta hedabideetan hitza duen edozeinek, pedagogia lan bat zor dugu, informazioa zabaltzeko eta indartzeko betebeharrak morala daukagu. Pestizida eta jitez aldatutako organismoak erabiltzen ditugun bakoitzean jendea hiltzen ari garela ozen esatea heziketa alimentarioaren parte da. Ezin dugu pentsatu horrela ekoizten segi genezakeenik. Neurriak hartzea politikarien lana da, baina baita gizarte zibilarena ere. Ezin dugu dena politikarien esku laga, protagonistak izan behar dugu. Gure eguneroko bizitzetan protagonista izatea da politika aldatzeko modu bakarra.

“Ekoizle eta koproduttore sareak berreraikitzea da laborantza berri baten arnasbide bakarra”

Egia da gaur-gaurkoz firma kimikoei boterea kolonizatuta daukatela eta politika eta politikariak baldintzatzen karta guztiak dauzkatala eskutetan. Baina hori irauli genezakeelakoan nago. Sistema honek hondoa jo du eta ezingo du etengabe hondoz hondo ibili. Guri dagokigu erro berriak sustraitzea, oinarrietara itzultzea ez dela gibelera egitea frogatzea. Okerrena da inork ez dakiela hemendik

30 urtera hau zer izango den! Pentsa, horrela segiz gero 2050ean, 9.000 milioi biztanle izango gara munduan, 18.000 milioirentzako beste ekoizketa dugu, eta alferrik galtze hori kudeatzeko izango da. Horregatik diot gaur hasten dela geroa, alferrik galtzen dugun ekoizpena murriztu behar dugula, baliabide naturalak berriz errespetatzen hasi, eta lurra lantzen dutenenganako kontsiderazio justuagoa ezinbestekoa zaigula.

Horrek ez al du laborari izateko beste molde bat asmatzea eskatzen?

Bistan da. Ofizioari duintasuna itzuli behar zaio. Ekoizle eta koproduttore sareak berreraikitzea da laborantza berri baten arnasbide bakarra. Ez gaitezen engaina, laborantza orain ezagutzen dugun gisan hilda dago.

EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Iparraldean 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU



TOLESTU

Laborariari duintasuna eskaini nahi badiogu, oporrak hartzeko eta gaixotzeko eskubideak onartu beharko zaizkio, baina horretarako banaketa molde berriak ezarri behar dira plantan. Banaketa handiak birrindu du nekazariak autonomia izateko zeukan aukera. Baserritarra izango da ekoizle bakarra munduan bere lanaren prezioa erabakitzen ez duena, inposatuta etortzen zaiona. Hori injustizia itzela da. Horregatik, distribuzio berri horrek zuzena behar du, ekonomia lokala indartzera datorrena, eta ez kontinentez kontinente jakia bidaiaraziko dituen. Laborantza lokala defendatzea da karta jokoa hautsi eta kartak berriz banatzeko modu bakarra.

Orain "bio" jatearen izenean, alta, munduaren beste puntatik datozen elikagaiak jaten ditugu herriko baserritarrenak gutxietsita.

Hori astakeria handia da. Une hauetan, elikadura biologikoa ez dago denon eskura, eta laborantzaren etorkizuna aberatsentzat soilik dela uste duena ez doa inora. Biorako urratsa bere mozkinak garestiago saltzeko soilik eman duen nekazariak laborantzaren ikusmolde eria du. Horrek zer esan nahi du, dirua daukanak bio jan dezakeela eta besteak kaka jatera kondenatuta daudela? Hori ez da justua. Kalitatezko produktuak denon eskura jartzeko baldintzak sortu behar ditugu, denon eskubidea baita ona, garbia eta justua jan ahal izatea. Horretarako heziketa alimenterioa behar da, ezin dugu krapulak bezala jokatzeko segi, ezin dezakegu jateagatik soilik jaten dugula pentsatu. Ez, produktua errespetatu behar dugu, naturarekin eta gure gorputzarekin harreman harmoniatsuan jaten ikasi. Elikaduraren ikusmolde krapulosoia elikaduraren ikuspegi hutsa da. Gure gizarteak industriak ekoiztutako eta inportatutako janariarekin aski zela sinetsi du, barruraino hanka sartzen ari zela ohartu gabe. Pentsa, gazteei lurarekin eta lurretik bizitzeko aukera eman beharrean, laborariaren figura etorkizunik gabetzat joz menostu dugu. Paradoxikoki, Amerikako Estatu Batuetan, fast food-aren erreinuan, uste hori hankaz gora jartzen ari den iraultza isila abian da. Lurraren eta ortuaren garrantziaz jabetzen ari da jendea, eta Europak, bere burua iraultza horren ispiluan begiratzen duenean, laborari eta hiritarren arteko kohesio soziala puskatu izana zelako hondamendia den hausnartu beste erremediorik ez du izango. Gogoeta hori da justizia soziala berreraikitze modu bakarra.

Lurrarekiko harreman hori estutzeko eskatzen duzu eskola, ikastetxe eta unibertsitate guztietan baratzeak jartzeko?



Jakina. Aurreko astean Peruko sukaldari bati esker lortu dugu Peruko Gobernuak bertako eskola eta ikastetxe guztietan ortua jartzeko ideia bultzatzea. Horrek zer esan nahi du? Peruko agintariak jabetu direla baratze baten funtzio hezitzailearen garrantziaz. Haur batek hazi bat erein, eta fruta edo barazkiak nola datozen ikusten duenean, esentzia naturalak, historia, memoria, identitatea, ekologia edo lanarekiko errespetua biltzen dituen sekulako dimentsio formatiboa jasotzen du. Gure gizartean, bukatu da laborantzaren belaunaldiz belaunaldiko etxeko berezko transmisioa. Gizarte post-industrialia da gurea eta haur eta gazteek ez dituzte lurreko produktuak edo animaliak ezagutzen. Horregatik, heziketa hori naturalki emateko guneak sortu behar ditugu, naturarekiko zilibor-hes-tea nolabait berreraiki, eta ortuarena horretarako formula bat baizik ez da. Gainera, umeei protagonista izan, laborarien lana lehen esku-



AZKEN HITZA

Identitatea

“Gastronomia tradizionala ez da kasualitate bat, identitate eta ingurune baten arteko mendeetako elkarbizitzaren emaitza baizik. Ni hemengo ardi buru beltzez ari naizenean, badakit lurrari eta identitateari loturiko oso ezaugarri bereziak dituen produktu batez ari naizela. Ezagutza hori indartzea ezinbestekoa da, eta horretarako gastronomoek ingurunea errespetatu behar dute eta ingurumen arloan lan egiten dutenak gastronomoak izan. Horretan oinarritu behar dira politikariak finantzak gobernatzeko. Izan ere, orain finantzek dute politikaria gobernatzeko”.

tik baloratu eta errealtatearen ezagutza zuzena izateko parada eskaintzen diezu. Izan ere, egun estetikaren arabera baztertzen ditugu jakiak. Non ikusi da hori? Ze axola du azenario bat oker badator edo patatak tuberkulu txikitxo bat badakar bere baitan? Horixe da natura, baina ez, guk estetika gustuaren gainetik jarri dugu.

Medio askotan, horregatik hitz egiten da hainbeste elikagaien balore nutrizional eta ekonomikoez, eta hain gutxi jatearen plazeraz?

Zer nahi duzu, argaltzeko jateko baino gehiago gastatzen den gizartean bizi gara. Niretzat jatearen ardura eta plazera estuki lotuta daude. Zoritzarrez, ordea, egoera eskizofrenikoak sortu ditugu jatearen inguruan. Nazkatuta nago forentseak hilotza nola fotografatutako aldizkarietako errezeten ataleko plater perfektuekin eta telebistako sukalde programa gehienetako hoztasun aseptikoarekin. Hori pornografia komunikatiboa da. Egia da jende askok arazoak dituela janariarekin. Horregatik diot heziketa alimentarioa dela bizitzan egin beharreko lehen heziketa. Guk Slow Fooden ez dugu ingurumenaren defentsaren alde soilik lan egiten, jatearen plazera ere aldarrikatzen dugu. Alabaina, benetako plazera ez dator izaera krapuloso eta sistema ekonomiko kriminal horretatik. Nik ez dut jainkoarengan sinesten, baina sinetsi behar banu, gizakiak irauteko ezinbestekoak dituen bi gauzak, jatea eta ugalketa, plazerean oinarritu zituelako sinetsiko nuke. Horregatik diot jatea lehen nekazaritza-ekintza dela.

Modu batera jaten badut laborantza jakin bat ari naiz bultzatzen eta beste bat ukatzen. Ekoizpen lokalak jaten baditut, bio kontsumitzen badut, ingurumena errespetatzen duten mozkinak erosten baditut, nekazaritza-ekintza bat egiten ari naiz, ekintza politiko bat. Hortaz paso egin eta kimikaz jositako produktuak erosten baditut badakit zer ari naizen bultzatzen. Politika ez da boza ematea bakarrik. Zerbait erosten duzunero ari zara politika egiten, laborantza egiten. Jatea aukera politiko bat da.

Zer zerikusi dauka aukera politiko horrekin gizarte honetan denborarekin daukagun harremanak?

Hor dago Slow Fooden filosofiaren sustraia. Fast foodak bi gauza arbuia garri ditu. Batetik, gustuaren homologazioa. Mundu guztiak jan behar du gauza bera eta jaki guztiek daukate Ketchup gustua. Ez dute herrialde bakoitzaren aniztasun gastronomikoa errespetatzen. Bestetik, janaria gasolina bezalakoa dela iruditzen zaie, ez du garestia izan behar, berehala bete behar du depositua, eta iritsi orduko ospa egiteko moduan bazaude hainbat hobel! Hori elikadura gutxiestea da. Elikadura kontu pasionala da, afektiboa, lagunartea sortzeko aproposa, intimoa... Ezin dugu elikadura depositua betetzea dela esan! Alabaina, inork ez dezala pentsa Slow Food mantso-mantso jateko sortu zenik. Geldotasuna ez da balore bereizgarri bat, pertsona geldoegia estupidoa da. Geldotasuna medicina homeopatikoa da. Abiadurari garrantzi handia ematen dion gizartea, abiadura arazo guztien irtenbidea dela uste duen gizartea, etengabe erratzera kondenatuta dago. Habailak behin eta berriz darama hanka sartzera. Horregatik gure erritmo naturala berriz kausitu behar dugu. Bizitzaren dimentsio naturalagoa dugu helburu, ez gizarte honek inposatzen digun dimentsio eskizofrenikoa. Slow Food Slow Life ere bada. ■



Eskuratu **Zumetak** ARGI Arentzat egindako lan-grafiko originala

 **argia**



EZAUGARRIAK

- Edizio limitatua
- Jose Luis Zumetak eskuz sinatutakoa
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 50x40 cm
- ARGIAko harpideek izango dute lehentasuna
- 160 €

ESKAERAK



943 37 15 45



gunea@argia.com



www.argia.com/denda

BAUEN HOTELA

Nagusirik ez duen ostatu asanblearioa

Buenos Aires erdian dagoen bost izarreko luxuzko hotela da Bauen. 2001eko abenduan, nagusiak bertan behera utzi zuen negozioa, eta kalean utzi zituen langileak. 2003ko martxoan, 30 langile inguru eraikina zaharberritu eta lanean hasi ziren, Argentinako Enpresa Berreskuratuen Federazioaren laguntzarekin. Gaur egun, 150 soldatapekok baino gehiagok egiten dute lan hotelean eta asanblea orokorretan hartzen dituzte erabakiak.

| SUB ARGAZKILARI KOOPERATIBA |





Lana eta elkarbizitza. Biak uztartzen ditu Baueneko egunerokoak. 2003tik, jatetxea, hitzaldietarako aretoak eta auditorioa berreskuratu dituzte eta kontzertuak, irratia saioak eta antzezlanak eskaintzen dituzte. Juan Pacífico-k (goian ezkerrean, gosaritarako mahaia prestatzen) 68 urte ditu eta bere esanetan, “hemen ongi gaude, herrialdeko beste lekuekin alderatuta. Kooperatiba esperientzia ona da eta horren adibide da hotel hau”.



BAUEN HOTELA



Bizitoki. Igogailua konpontzen, inprentaz arduratzen edo garbiketa egiten, beharrik ez da falta Bauen hotelean. Abelek 37 urte ditu (behean, eskuinean) eta duela zortzi urtetik bertan lan egiteaz gain, hotelean bizi da. Sortu duten komunitate berezi eta eraginkor hau babesten duten pertsona ezagunak ugariak dira, tartean Danielle Mitterrand, Naomi Klein, Noam Chomsky, Evo Morales, Hugo Chávez, Susan Sarandon eta Adolfo Pérez Esquivel.



Argentinako sinbolo eta eredu.

Buenos Airesko hirigunean dagoen 20 solairuko eraikina da Bauen, sinbolo bihurtua. 1978an eraiki zuten, azken diktadura militarreko Munduko Futbol Txapelketan. Jabeak, hilda dagoen Marcelo Lurcovich-ek, esan ohi zuen sos bakar bat jarri gabe eraikia izan zela.

Página 12 egunkariaren arabera, inoiz itzuli ez zuen mailegua eman zioten enpresariari, armadarekin zuen harremana baliatuz. Enpresaren behin betiko desjabetzea eta nazionalizazioa eskatzen dute langileek.





DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Gobernu berria, garai berrirako

GIZARTEAREN BEHARRAK aldatzen dira garai bakoitzean. Batzuetan gizarte bera aldatu delako eta bestetan, egoera berri baten aurrean gaudelako. Gizartearen ordezkaritza berritzen da, hain zuzen ere, herriaren beharrei erantzun ahal izateko.

Orain urte batzuk galdera bat luzatzen genuen abestuz: Zer eskatzen du herriak? Eta gero erantzun bat botatzen zen. Gaur –beti bezala– galdera hori berreskuratu eta mahai gaineratu behar da eta, noski, erantzun egin behar zaio. Gobernuak erantzun behar dio.

Eta zer da herriak eskatzen duena? Ez dut uste hori jakiteko gaitasun berezirik behar denik. Gizarte honek zera nahi duela esan du: krisiari irtenbide juxtua ematea eta justizia soziala helburu izatea, zerbitzu publikoak mantenduz; bakea eta elkarbizitza sendotzea eta Estatu espainiarrekiko harremana birpentsatzea. Hauek dira gizarte honen nahiak eta helburuak eta hauek behar dute izan Eusko Jaurlaritza berriaren zereginak.

Guk, herritarrok, ez daukagu zergatik itxaron beharrik. Gure lana egin dugu; hitz egin dugu eta orain exijitzen dugu gobernuaren eginkizunik nagusia "gurea" konpontzea izatea

Baina osatu den gobernu egokia al da eginkizun horiek burutu ahal izateko? Edota hau al da horretarako behar den gobernu? Argi dago urriaren 21ean herriak hitz egin eta aukera eta apustu garbiak egin zituela: Eusko Legebiltzar aurrerakoi, abertzale eta bake sendoaren aldekoa hautatu da. Bada, horiek beharko lukete izan, hain zuzen ere, gobernuaren koloreak.

Egia esan, gobernu berriaren koloreak bere eguneroko lanaz margotuko dira. Baina, hasiera honetan behintzat, ez da gobernu sendoa; sostengu eskasa du legebiltzarrean eta, horregatik, arlo guztietan gehiengoak osatzea eta akordioak lortzea

izango da bere eginkizunik nagusia. Argi dago kolore eta asmo nagusiak jarraituz gero, adostasunak iritsiko direla, indar politiko guztiek zintzo jokatzuz gero. Denei eskatu behar zaie leialtasunez eta begirunez aritzea, ez bakarrik gobernu berriari, baizik eta alderdi guztiei, herritar bakoitzari eta gizarte osoari. Eta, horrekin batera, indar politiko guztiek exijitu beharko diote gobernuari herriaren eskareiei erantzun zuzena ematea eta derrigor-tuta egongo dira, baita ere, lan horretarako laguntza ematera. Herriak ez du beste jarrerarik onartuko.

Baina bestelako gobernu posible al zen? Une honetan, argi dago ezetz. Gobernu zabalak, anitzak eta sendoak eraginkorrak dira. Indar bakar batek osatutako gobernuak ahaztuta genituen López lehendakariak berea osatu zuen arte. Orduan, berak ukatu zuen beste irtenbidea eta berak aukeratu bakarrik gobernatzea, akordio zabala baina alde-bakarrekota lortuz legebiltzarrean. Baina orain, Urkullu lehendakariak ez du jarre- ra positiborik aurkitu beste indarrengan eta berak zeukan gobernu osatzeko ardura, herriaren agindua berak jaso zuelako.

Garai zailak dira, erronka handiak eta konplexuak ditugu aurrean. Adostasun zabalak eskatzen dituzten erronka bate-argarriak. Indar politikoen arteko distantziak gaindigarriak izango dira espazio politikoen artean komunikazioa mantentzen bada. Ez dago denborarik beste era batera aritzeko. Guk, herritarrok, ez daukagu zergatik itxaron beharrik. Gure lana egin dugu, hitz egin dugu eta orain exijitzen dugu Gobernuaren eginkizunik nagusia "gurea" konpontzea izatea. Baina ez bakarrik gobernuarena, indar politiko guztiena baizik. Espero dut inork ez ukatzea ezinbestekoa den laguntza eta bide horretatik gizartearen koloreetaz margotzea arduradun politikoen lana. Eta, noski, kolore horiek nahasterakoan lankidetzaren paleta erabiltzea. ■





URDEKI-MARKA BATEK ESPAINIAR
KURRIKULUAREN ESPOTA EGIN DU

ONGI HELDU, HAINBESTE
TXORIZORÉKIN !!!

TXORITU = LAPURTU



Hala ere, ezin garbiago mintatu da ministroa:
HEGO EUSKAL HERRIAN ERRESPEATU EGITEN DELA
ESPAINIARAREN HEGEMONIA.

EUSKARAREN LEGEAK 30 URTE · HORI BAI RIDICULUMA!

Iñaki Mendiguren

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Desmond Tutu

BERRIZ haur izaterik banu eta galdetuko bazenit “Nor izan nahiko zenuke nagusitzean?”, zalantzarik gabe erantzungo nizuke: Desmond Tutu! Oso erakargarria eta eredugarria gertatzen zait: ausarta, zuzentasunaren sen zorrotzekoa, erradikala (arazoen sustraietara joaten dena), zapalduekin konprometitua, bakegilea (1984ko Bake Nobela, orain saria Europari ematearen aurka azaldu dena), teologia beltzaren sustatzailea, Hego Afrikan Eliza anglikanoaren buru izandako artzapezpikua (dagoeneko erretiroan), lau seme-alaben aita, alaia eta umoretsua...

Afrikan homofobia oraindik ere indartsu eta zabaldua dagoenean, iritzi askoren aurka ozen hitz egin izan du 81 urteko gazte honek gay eta lesbianak Elizan eta gizartean besoak zabalik hartu beharraz

Lehenik bere herrialdean egin zuen borroka luzea *apartheid*-aren aurka eta beltzen eskubideen alde, zuriari etsai nagusi bihurtzeraino bere bizitza arriskuan jarritz; gero, Egiaren eta Adiskidetzaren batzordeburu, barkamena (ez ahanztura) eskatzen eta ematen irakatsi zuen; eta geroago beltzak agintara iritsi ondoren, profeta zorrotz izaten jarraitu du Hegoafrika berriaren zenbait norabide kritikatu. Bere ospeagatik Afrika osoan eta handik kanpo hainbat gatazkatan esku hartu izan du, eta beti

asmatu du hitz egokia esaten egoerarik latzenetan ere. Israelera joan eta Holokaustoaren egileei barkamena zor zaiela esan zien juduei, gero, Holokaustoren museo (Yad Vashem) ikustera joan zenean, pintada honekin topo egin bazuen ere: “Txerri beltz eta nazia da Tutu”.

Bestalde, Afrikan homofobia oraindik ere indartsu eta zabaldua dagoenean, iritzi askoren aurka ozen hitz egin izan du 81 urteko gazte honek gay eta lesbianak Elizan eta gizartean besoak zabalik hartu beharraz.

Eta nondik datorkio bere mundu-ikuskera? Ba, ebanjelioaren interpretazio iraultzailetik eta Afrikako *ubuntu* kontzeptutik (“persona bat beste pertsona batzuen bidez da pertsona”).

Galdetuko bazenit “Nor gonbidatuo zenuke aurtengo Gabonetan mahaira?”, badakizu zer erantzungo nizukeen. “Eta zergatik?” Ba, Euskal Herriaren une historiko honetan lagungarri izango litzaigukeelako “desmond tutu” bat hemen. Gainera, ez ahaztu hil honen 10ean berari eman ziotela Unesco-Bilbo saria. Eta bake-mahairaino ezin badugu lider hau ekarri, gutxienez eskatu Olentzerori, labetik atera berri-berria, haren liburu eder bat opari: *Dios no es cristiano. Y otras provocaciones* (Desclée, Bilbo 2012), Desmond Tuturen biografia den John Allen-ek haren adierazpenez apailatua.

Irakurle, Eguberri on, eta Urte Berriari ongietorria emon! ■



txondorra
erretegia

☎ 943 794 276

Bizkaia etorbidea, 9 / 9

Arrasate (Gipuzkoa)

txondorra-sagardotegi.com



Amaia Fontag

♦ FEMINISTA, SINDIKALISTA

Legez harago, mentalitateetan eragin

ABENDUAREN 1ean 800 bat lagun bildu ginen Miarritzeko Kasino aitzinean, Baionako apezpikuak antolatutako Bizitzaren Aldeko Nazioarteko Foroari erantzuteko. Parean, pentsamolde oneko jendea genuen: Cristo Rey eta Opus Dei-ekin lotura duten taldeak: Pro-Life, bestak beste. Hots, homosexualen ezkontza eta hauek haurrak adoptatzeko eskubidea gaitzesten dituztenak. Bizitzaren izenean, morala inposatu nahi digute, alta, arras ongi badakigu haien moralak ez duela sekula bat egin norberaren askatasunarekin eta guztien errespetuarekin.

Foro hori, Parisko Legebiltzarrean urtarrilean presentatua izanen den Denentzat ezkontza lege proiektua gaitzesteko antolatua zen. Ildo berean, azken aste hauetan, Frantziako Estatuko herri frankotan molde bereko hainbat ekitaldi eta manifestaldi antolatu dira arrakasta bilduz.

Alta, lege hori ez da iraultzailea, zuzena baizik: gay eta lesbiano ezkontzeko eskubidea eman nahi die, baita adoptatzeko ahal ofiziala ere. Hots, berdintasuna aldarrikatzen du, bertzeentzat onartua dena guztientzat bermatzea, ez gehiago ez gutiago.

Hainbat alditan gogoetan aritu naiz: ezkontza aldarrikatuz ez ote ditugu araura ekarri nahi jende guztiak, orientabide sexuala guzietakoak, gay, lesbianoak, bisexualak, heterosexuallak? Eta ezkondu nahi ez dutenak?

Miarritzeko Kasinoaren aitzinean nintzelarik gauzak oso argi nituen: ez, arazorik ez da. Denek eskubide berdinak izateak ez du erran nahi denek eginbide bera izatea. “Aukeratzeko askatasuna” da funtsezkoa.

Espainiako Estatuan, Dani-markan edo Belgikan, Europako beste herrialde batzuetan bezala, jadanik eskuratu dute ezkontzeko ahala, baita adopzioa egitekoa ere. Frantziako Estatuan zergatik ez?

Legeak babesle izan behar dira eta aitzindari, jende anitzen pentsaera baino urrats bat aitzinago. Abendu honetan aurkeztu behar duten legearen inguruan sortu diren eztabaidak eta gatazkek erakustera ematen digute homofobiak indartsu eta ozen dirauela. Trufak, zokoratzek, erasoak... beti hor ditugu.

Gure jendartea oraindik jendarte homofobia da, ez gaitzen engaina, bide luzea dugu oraindik egiteko. Iraultza mentala lortu behar dugu, eta lege batek laguntzen ahal du horretan. Urrunago joateko, guk dugu egunero obratu behar, arlo publikoan nahiz pribatuan, eskolan nahiz unibertsitatean, kirolean nahiz lantokian, karrikan nahiz etxean, mentalitateak aldatzeko.

Noiz ikusiko ditugu, gay, lesbiana, bisexual, trans... bikoteak eskuz esku karrikan? Hori izanen da niretzat, egiazko egoera normalizatuaren seinalea, jendarte zuzen eta libre batean. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Extrari jarriak



NAGORE LEGARRETA

Aitor Sarriegi

♦

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak.

Raxoiri eman bazaio, eman, agintearen grazia erein da erein dabil han-hemen murrizketaren hazia. Gabon garaiak askorentzat du aurten zapore gazia alferrik dira eskubideak, alferrik demokrazia dekretu batek irensten badu urtetan irabazia.

“Extra” esanda uler liteken arren oparia dela berez soldata jaitsiera da, ez bedi uler bestela. Okerrena da hemen bat baino gehiago poztu direla “funtzionario alfer alenak izorratu daitezela...” besteren txarrak eurentzat ona baldin balekar bezela.

Gasteizen bada parlamentu bat Iruñetik apartean Iparraldean hori ere ez, lau katu Paue partean. Arrain handiak arrain txikia hartu du hortzen artean eta herririk ezin da sortu euskaldunon jendartearen erabakiak Euskal Herrian hartzen ez diren artean. ■



JOXE AGIRREREN HERIOTZEAN

Bertsolariek Bertsolariari

Abenduaren 15ean eman zuen azken hatsa Joxe Agirrek, 83 urte zituela. 60 urte pasatsu egin zituen plazaz plaza azpeitiarrak, eta txapeldun handienetakoa izan zen, txapelik sekula jantzi ez zuen arren. Bere gertuko bertsolarien hitzek joan berri den pertsona eta bertsolaria ekarri digute.



ALBERTO ELOSEGI

**Imanol
Lazkano**



Ez ustekotik ez ustekora mago izatera iritsia, bertsoeroko galdera huen orain non dauka untxia? bertsolaritzan aro polit bat Joxe hik diguk itxia, Txirritak zuen dotriña hartako azkenengo harri bitxia.

Hire barruko txinpart bakoitza azaltzen huen mingainez dotore jantziz ziri zorrotzez eta esaldi apainez. Orain zaleon begietatik malkoak egin dik gainez hainbat urtetan eman diguken gozamenaren ordainez.

Mendi gaineko arnas freskoa kutsatu gabeko haize, horregatikan ginuan beti hire bertsoaren gose. Nahiz oraindikan guk gehiago nahi ezin ginelako ase egin dukanak ez dik izenik MILA MILA ESKER JOXE. ■

ALBERTO ELOSEGI



Joxe Agirre Oranda baserriaren aurrean.

DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



Guri zuka

GURI ZUKA egiten zigun Joxek, eta hori ez da hain ohikoa Izarraitzpean, are gutxiago hizkuntzaren pikardia hitanoan deklinatzen ohitua dagoen pertsona baten baitan, baina guri zuka egiten zigun Joxek, eta hurbiltasun keinu bat bezala hartzen nuen nik.

Logika existentzialetatik aparte bizi zen Joxe, zaharrago eta jolastiagoa egina zegoen, aurpegian kattagorri bat ari zitzaion azaltzen, eta Oranda ez da Urepele, baina hura ere nahiko mendi hegaletan gora dago, ongi bihurritutako bidean, baina hark ez zuen plazara jaiste beste irrikarik, kamino hartan brea botata zegoen.

Bertsotan egin nahi zuen Joxek, eta hil arte borrokatu du horretarako, inguruko guzien kontra, zaharturik ere jolasteko gogoia manifestatzen zuen. Ezin bizitza bati gehiago eskatu, jolasaren frenteko lehen lerroan hil da Joxe. ■



Joxe Lizaso,
Joxe Agirre
eta Imanol
Lazkano
1974an.
80ko
hamarkadan
plazetan
nagusi izan
zen Azpeitiko
hirukotea.



**Andoni
Egaña**



Eta gainera... errimatu!

“JOXE, IZAN AL ZERA INOIZ AMERIKAN” jarri zioten puntua duela ez asko Mallabin. “Hori oso urruti dago hamendikan” hasi zuen erantzuna, eta hor bukatu balu ere aski zuen. Joxe Agirreren bertsokeraz zerbait idazteko eskatu didate eta hamairu silaba horietan antzeman daitezke bere ezaugarriarik nagusienetakoak: bizkortasuna eta egokitasuna. Bat-batean, braustakoan eta soinu handiegirik atera gabe hain zehatz erantzuten bakarria zen. Bestalde, Orandaren bertsoa aisa eta gozagarri sartzen zen belarrietan, besteak beste, berak ere belarria gidari zuela botea izaten zelako. Hoskidetasuna inork gutxi bezala zukutzen zekien eta bertsoak, niretzat behintzat, duen alderdirik ederrenetakoa hori da. Maisu zen aditzak jokatu, hitzak deklinatu eta hizkuntza behartu gabe, hoskidetasunari tiraka eta muturre-raino eramanaz, nahi zuena adierazten.

Zestoan beste behin, aspalditxo, baina Joxe mutil koxkorra ez zela ordurako belanetakoa ajeak hasiak baizitzaizkion, beste honako puntu hau jarri zioten: “Joxe zer moduz zabiltz, belanetatikan?” eta honakoa izan zuen erantzuna: “atzera gertzen naiz lagunetatikan. Asko bajatu gera garai batetikan, ta zu adarra jotzen aldamentikan.” Propio idatzi dut dena jarraian eta ez lerroz lerroko moldean, bertso hori hitz-lauz ari balitz bezain egoki jasotzen dela ohar gaitezen. Izan ere, Joxeren estiloa hitz bakarrera ekarri behar banu, “ezkerre-

ko bertsoa” egiten zuela esango nuke. “Eskuineko bertsoa” deitzen diot errima-hitza pisu handia duen bertsoari. “Eskifaia” hitza badugu errima bat, haren aurretiko esaldian bota daitekeena oso da mugatua. “Dago”rekin errimatzen badugu aldiz, aurretik ia geuk nahi duguna esateko moduan gaude. “Eskifaia” errimatzen duen bertsoak pisua eskuin aldera hartzen du derrigor, esaldiaren amaieran, eta “dago” errimatzen duenak ezkerrean, esaldiaren hasieran.

Guztiok osatzen ditugu ezkerreko eta eskuineko bertsoak. Baina Joxek sena berezia zuen karga esaldiaren hasieran jartzeko. Zestoako bertsoari erreparatuz gero, ez da munduan errima-zerrendarik “belaunlagun-garai bat eta aldamen” batzen dituenik. Orandak orde egoki josi zuen bertsoa eta ondo azaldu esan nahi zuena. Laburbilduz: gutariko askok, errima-hitza hautatzen dugu eta gero hara iristeko, esan nahi genukeenera gehien hurbiltzen dena esaten saiatzen gara. Joxek, esaldia hasi, nahi zuena esan eta gero gainera, errimatu egiten zuen.

Ziur nago hau berak irakurri izan balu, irribarre egin erbinude begirada zorrotza leuntzeko, eta honelako zerbait erantzungo lidakeela, buruari ezezkoan eraginez: “Ez dakit ba... Nik ere gehiagotan entzun behar izaten dut nahi ez dudana, nahi dudana esan baino”. ■



Joxe Agirre Mattin, Xalbador eta Lazkanorekin.



Jexux Mari Irazu

Uztapide ta Basarrirekin,
Lazkanorekin sarritan.
Egañarekin, Euskitzarekin,
Lujanbiorekin zirikan.
Amuriza zein Uriarekin...
bost belaunaldiren zitan...
zaharra berri egi bihurtuz
historiaren begitan.

Ehun plaza bueltan eginez, Joxe,
aze urte sail itzela
aurpegietan hainbat irrifar
margotutako pintzela.
Beti zeuretik beti zeurean
erakutsiaz horrela
Txapelketatik kanpora ere
bizitza badagoela...
(Ta zergatik ez, igual bizitza
kanpoan dagona dela).

Hizkuntza nondik bihurrituko,
Agirrek zenbat zezakeen
mamari ze estutu aldiak
finenetik erasaten.
Dohain horiek bertsolaritzan
nonbait bakanak izaten...
Ondorengooi kostako zaigu
zuk aina egi esaten. ■

OSO OKER EZ BANAGO, bazen “axari axiantea” antzerki obra. Ba, horrela-ko izaeraduna genuen Joxe Agirre: axioak, azioak, akzioak... ziren bere jardunak natural egiten zituenak eta bere jarduna natural egiten zutenak.

Oranda baserrian jaio eta malkar maite haietan lanean, giharrak sendotutako baserritarra genuen Joxe, harrobiko lan ez askoz arinagoak eta bertsoteak uzten zion tarte baliatuz. Lana maite zuen eta gustura sentitzen zen hartan (gustuko tokian aldaparik ez!), agian horregatik, nire gisara berandu ibiltzen zen fama zeukan “Gaur ere izango dik txahalen bat jaiotzen edo... Bazeukak behi alu bat urtean dozenerdi txahal egiten dizkiona... nonbait” entzun nion bere bertsokide kuttun bati.

Baina, berandu abiatu arren, joandako lekuan berea eman gabe ez zen itzuliko, orde. Beti erne; beti lagunak zer esango zain eta erantzuna prest! Gutxi barkatzen zuen Joxek, esan nahi baita, ustekabeko irristadarik ezdeusena ere aski zuela ziria sartzeko. Horretan zen axaria; axari bihurria; ez, zuk daukazun hoberena kenduta uzten zaituena, ziria sartu eta ekarpen bikaina egin da aberasten zintuena baizik. Berea egin eta egiten uzten zizun lagun argia, garbia eta gauzak beren gordinean maite zituen. Esateko modu bereziak eta berezkoak, gordin esana gordinkeriatik babestuz. Txapelketa nahiz txapelik gabe punta-koek haina saio egiteko eskaria izaten zuen, bertsoszaleek maite eta estimu handiz zutenaren seinale. Eta bere estiloan hain zorrotz eta lehiakor, bertsotan gutxik jarduten zuenaren frogara dira, hainbat bertsolari gaztek Joxeren bertsokera hautatu izana eredu edo eskuratu nahiko zukeen desio modura.

Ez horrek, ez izenak, ez ikaske-tek, ezerk ez zuen kikiltzen Joxe

kantuan hasitakoan. Eta gehienez, zuku majoa atera gainera lagunaren tituluei eta balizko jakinduriari. Emakumezkoak bertsotan plazan topatzen ere, nahiz eta adinean aurrera harrapatu zuen Joxe, adineko bertsolarietan gutxiena berari eragin ziola horrek, esango nuke. Nola gai jartzaile hala bertsokide, emakumezkoak izanda ere, hark ez zuen aldatu bere axari estiloa eta, parean tokatzen bazen, ziria sartuko zion konturatzerako.

Puntu erantzun bizi-biziak eta, ia beti, esaten zuenarekin erdiz erdi asmatzen zuelako, bidenabar puntu jartzaileari adar jotze dotoreak eginez, zaleek asko maite zuten axari izaera zen berea. Behin Joxerra Gartziak jarritako puntu hauek adibide:

J. Gartzia: Ez dago egoterik
beti egonien,

J. Agirre: horregatik ai gera
hemen jardunian
baina kezka bat badut
nere barrenian
latoso galanta dut
gaur aldamenian

J. Gartzia: Igual igualak dira
Holanda ta Oranda,

J. Agirre: xelebria izan da
zure propaganda
Izarraitz haitz onduan
ni jaio nintzan- da...
Holanda berriz dago
urrutira juanda.

Errimak ere bere bereak zituen eta beste inork ez bezala erabiltze-
gatik hain bereak ere: osasuna,
behazuna, behartzuna, didazuna...

Badu eta izango du jarraitzaile-
gure axariak; badu eta izango duela-
ko tokirik haren bertsokera. Ia utzi
digu hutsunea, erakutsi eta eman
digu baliatuz, lehenbailehen bete-
tzen asmatzen digun plazetan! ■

Iñaki
Murua




Axari axiantea!

doku sarea

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitez zure herrian antolatzerara!

HILABETE HONETAN



MORIR DE DIA

Transiziotik gaur egun arteko Kataluniako historia bere alde izkutu batetik begiratuta: heroina. Kontrakultura eta giro politikoko pertsonai garrantzitsuenetarikoen agerpenak Pau Malvido, Mercè Pastor, Pepe Sales edota Juanjo Voltes adikzioak markaturik dagoen bizi baten erronkaz mintzo zaigu, Francoren heriotzarekin hasten dena eta gaur egun arte heltzen dena.

- > Laia Manresa, Sergi Díes
- > Estudi Playtime, Únicamente Severo
- > 2010


HARREMANETARAKO

DATOZEN EMANALDIAK

BRAD. BESTE GAU BAT BARRIKADETAN



ESKUTUKO ZORRA



EGUZKI BIDEOAK
948 211 537 / 608 928 631
dokusarea@eguzkibideoak.info
www.eguzkibideoak.info

ITSASO GUTIERREZ

ON TALDEKO GITARRA JOTZAILE, KONPOSATZAILE ETA ABESLARIA

«Inguruko hainbatek ez du sentitzen matxismorik badenik, eta uko horrek mindu egiten nau»

Urtarrilean sortu zuen ON taldea, Denis Alberdi bateria eta Ibai Suarez baxua lagun zituela, eta kontzertua kontzertuaren atzetik ari dira ematen, zuzeneko indartsuak eskaintzen. Jauko Barik, Keike, Branka eta Xarma taldeetan nabigatu dute aurrez musikariek, baina beren ilusioak nerabe talde batena dirudi. Kaleratu berri duten diskoa besapean, erne eta bizi iritsi da Itsaso Gutierrez Donostiako Kaxilda liburu dendan genuen zitara.

| IRATXE ESNAOLA |
Argazkiak: Dani Blanco

Oholtzara erreparatzen dugu askotan neska erreferente bila. Alderantziz egin dezagun: zenbat neska ikusten da oholtza gainetik?

Musikari eredia gizonetzkoa izan da hemen, nagusiki, eta berdin ikuslea. Rockarekin amorrua eta haserrea adierazten ditut eta egoera pertsonal zailei aurre egiteko balio dit. Mutilak kontzertuetako lehen ilaran hori adierazten ikusi izan badi-tut ere, neskak nahi eta ezinean sentitu izan ditut sarri, eta ez gogo faltagatik. Ondotxo dakit nik, nerabetan gauza bera sentitzen bainuen, eta gaur gaurkoz, lehen ilaran tximak astintzen nabilenean inguruko gehienak gizonak izanik, harriturik so egiten didate. Askatu gabeko gatazka pertsonalek diraute gure baitan. Euskal Herri-kanpo, oster, emakumeak askeago sentitu izan ditut kontzertuetan. Atzerrian emakumezko sortzaile gehiago dago jendaurrean eta sortzaile bezainbat ikusle. Horrek mugimendua eragiten du. Hemen emakumeok gizonen produktuen ikusle izan gara oraintxe arte.

Diskoa zuek ekoitzi duzue. Musika eta kultura ulertzeko eredu batez ari gara, euskal kulturaren eremu alternatiboaz.

Garrantzitsua da esperientziak bizi izana gero norbere bidea hautatzeko. Jauko Barik-en Esan Ozenkirekin atera genuen diskoetako bat. Keiken Oihukarekin aritu ginen eta Xar-



“Errealitatea alda genezakeela uste izan nuen nerabezaroan, baina urteak aurrera joan ahala, hobera joan beharrean adabakiak jarri dituztela ohartu naiz”.

man autogestioari ekin genion. Auto ekoizpenak lan handia dakar baina onurak ere handiagoak dira. Bada norbere lanaren gaineko kontrola, eta norbere filosofia zabal daiteke. Nik musika egiten badut publikoari eskaintzeko da, eta beraz, diskoa edonork eskuragarri izan dezan nahi dut, kanpoko enpresa batek baldintzatu gabe. Euskal Herrian kultura kolokan ikusten dut, are kolokago garai digitalean,

edozein musika internetetik jaits daitekeen. Hemengo musikariek ez dute lehen adina jarraitzaile, geroz eta talde gehiago eta eskaintza zabalagoa diren arren. Lehen gutxiago baginen ere, bazen grina eta ilusioa bertokoen alde mugitzeko. Aukera eskergaren aurrean bertakoak indarra galdu du, baina kontzientzia eta hezkuntza kontua ere bada.

Amorrua eta salaketa daude zure letretan, eta horixe adierazten duzu kontzertuetan. Estrategia al duzu amorrua?

Amorrua denoi ernatzen zaigu atsegin ez ditugun kontuei erreparatzean. Rocka hori adierazteko modua da niretzat, baina ez da estrategia bat. Barrutik irteten zait. Ametsak izan ditut gaztetatik eta haien alde egiten saiatu naiz. Errealitatea alda genezakeela uste izan nuen nerabezaroan, baina urteak aurrera joan ahala, hobera joan beharrean adabakiak jarri

dituztela ohartu naiz. Eta hobeto goazela entzun behar, gainera! Berdin-berdin gaude edo okerrago. Inguruko hainbatek ez du sentitzen matxismorik badenik, eta uko horrek mindu egiten nau. Horrelako jarrerak errepre-sio handiagoa sortzen digute emakumeoi.

Abestietako bi gai aipatuko ditut, bulimia eta indarkeria sexista. Ez dira askotan izendatzen.

Euskal Herriko rockean zenbait aldarri ez dira apenas entzuten. Nik emakumeon kontrako injustiziez ere mintzatu nahi nuen On-en. Orain genero indarkeriaz asko hitz egiten da eta badirudi horretaz mintzatzea ona dela. Baina kultura matxistek sortutako beste hamaika arazo daude. Esate batera, beren bizi-tza hipotekatuz mutil-lagun preso bisitatzer-a doazen neskalagunez dihardut disko honetan. Ezkutuko mundutxo bat dirudi, baina emaku-me ugariren errealitatea da, eta askotan, sufri-menduz betea. Gai honetaz eta beste askoz hitz egin dezakete gizonak, baina ez dute egin ohi. Enpatia handiko gizonak badira, baina enpatia hori musikan islatzea falta zaie.

Irudiaren inperioak gure estetikari eman dion garrantziaz mintzo zara. Musikarien munduan ez da makala eragin hori.

Ordubetez oholtza gaineen dagoenari bai ala bai begiratzen diote, baina ni ez naiz apainago jartzen horregatik. Ondo pasatzera noa eta horretarako eroso egon nahi dut. Gizonak txandal eta zapatiletan eskaintzen dute lasai asko beren musika. Emakumezkook irudia zaindu behar dugu aurrea, eta gero, musika? Apain jartzeko badituzte beste une batzuk.

Zuloak gogorarazten dit horrek. 17 urtetatik musikan zabilta. Zer esan dizu filmak?

Proiektuaren berri Fermin Muguruzak eman zidan eta ataltxo batean parte hartzera gonbi-datu ninduen. Baiezkoa eman, eta trukean, gure diskoko *On* kantan parte hartu du. Ideia ona iruditu zitzaidan eta iruditzen zait. Bate-tik, ederra da hainbat emakumezko musikari agertzea beren esperientziez hizketan. Beste-tik, fikzioaren narrazioa dago eta atal horrek mina eta haserrea sortu dizkit, emakume ere-dua mingarri izan zaidan neurrian. Garrantzi-tsuagoa da musikari izatea irudi bat aldarrika-tzea baino. Hainbat urte daramatzat musikan eta ondo dakit zenbat eta nola borrokatu behar den norbere lekua lortzeko, zer den kanta bat defendatzea publiko osoa gizonak osatua denean. Feminismoa aldarrikatu nahi bada eta horretarako gorputzaren askatasuna erabili, beste hainbat mugimenduk egin izan duen bezala, ados nago. Baina emakume musikarien dokumentala behar zuen eta musikaren inguruko gairik apenas da mintza-



“Rockarekin amorrua eta haserrea adierazten ditut eta egoera pertsonal zailei aurre egiteko balio dit”.

gai. Ondo baloratzen dut filma, edonola ere. Barrenak mugitu dizkit eta auto kritikarako eta analisirako balio izan dit.

Zuen musika melodikoa eta indartsua da. Konposizio asko zureak dira.

Kantak berez irten zaizkit. Denis bateria jotzailearekin konexio berezia izan dut betidanik, eta biok musikalki askatu egin gara, gure onena atera dugu, Ibairekin batera. Taldean ez badago harreman metaturik zaila da gauzak behar bezala funtzionatzea. Gurean bada konexioa. Eta ilusioa. Kontzertua ederra da, baina lehenagokoa eta ondorengoa ere on da, elkarrekin egotea eta disfrutatzea.

Bizipen pertsonalen aztarnak ere nabari dira letretan. Iraganari agur esan beharra baina orainean bizitzeko zailtasuna.

Arrastaka dakarkigunagatik gara garena. Guk pilatutakoa eta arbasoengandik jasotakoa. Iraganaren motxila eraman zale izan naiz, eta batzuetan, kosta egiten da gainetik erauztea eta hutsetik hastea. Orain abestian agertzen dut sentipen hau. Askok egin daiteke iraganeko gauzak etorkizunean aldatzeko, baina garrantzitsua ez da ez bata ez bestea, unea baizik. ■





Haurren literatura

Smara.
Paula Carballeira.

Ilustrazioak: Carole Hénaff.
Itzulpena: Fernando Rey.
Pamiela-Kalandraka, 2012

Saharako istorioak

PAMIELA ETA KALANDRAKA argitaletxeen elkarlanaren ondorio da honako liburu hau, eta antza, bilduma berri baten lehen liburukia ere bada.

Smara Saharako basamortuan dagoen herri baten izena da, errefuxiatuak bizi dira bertan eta hara joandako mutiko batek kontatuko dizkigu ikusitakoak eta entzundakoak. “Gure aita oso kazetari ona izan omen zen. Nik gauza bakarra dakit: aita noiz itzuliko zain egoten nintzela ni, bidaietan ezagututako tokietako istorioak kontatzea nahi bainuen”. Hitz horiekin hasten da liburua eta narratzaileak berak hamaika urte zituenean aitarekin eginiko bidaia kontatzen digu, bai eta amona Ugagorekin izaniko harremana ere.

Amona Ugago oso pertsonaia berezia da, umeen ardura du, beraiek zaintzen ditu eta istorioak kontatzen dizkie, horrela liburuko narratzaileak amonaren ahotan jarriz herritarrek Smara herria utzi eta basamortu erdian Smara berria nola eraiki behar izan zuten kontatuko digu, herrialde horretako sineskeriak eta ipuinak ere azalduko dizkigu, baita heriotzari nola egiten dioten aurre ere. Kontu asko kapitulu labur baina hunkigarrietan.

Irakurlea gainera, Hénaffen irudien bidez, hitzen bidez iradokitzen den errealitate horretan murgil daiteke. Pastel koloreen bidez errealitate exotiko hori, basamortukoa, Afrikako mundua, islatzen da testua osatuz. Eta narrazioak berez duen xarma eta magia horri irudiarena gehitzen zaio.

Smara deituriko liburu hau hamaika kapitulu laburretan banaturik dago eta hasieratik, lehen pertsonaren erabileraren ondorioz, irakurlearen inplikazioa bilatzen da. Protagonistarekin batera irri egingo du irakurleak, baina baita begietan negar malkoak sentitu ere, sahararren errealitatea ezagutu eta haien egoera larriaren berri jasotakoan. Izan ere, Smara herrialde sahararraren isla baita. Beren etxetik botata, basamortuan bizi den herrialdea, basamortu erdian dagoen errefuxiatu sahararren hiria.

Istoriok politak dira, fantasia, magia, errealitatea, dena nahasirik ageri zaizkigu, sarritan kontakizun baten barruan beste ipuin batzuk ere tartekatzan dira, ipuin labur eta sinpleak. Eta aurretik iradoki bezala liburukia ez du amaiera zoriontsurik, herioak ere presentzia baitu istorio honetan (“Zertan ari zara, amona Ugago? Esan zuen amona Ugagok: ‘Gaua agurtzen, beldurrik ez dudala ikus dezan’ esaten dio herioaren bisita espero duen amonak”), eta honek guztiak irakurlearengan sentsazio gazi-gozoa uzten du.

Gustura irakurtzen den liburua da *Smara*, bai eta bihotza hunkitzen duena ere. ■

Xabier Etxaniz Erle



Munstroak *The balde*

SEKULAKOA *The balde* aldizkariaren azken zenbakiko azala, 67.a, eta sekulakoa *Munstroak* izenburupean mamian datorrena ere.

Inprentatik atera berri den zenbaki honek, Hafsteinsson & Billa-labeitia sinadurapean datozen argazkiak ditu plater nagusietako bat (azala ere bilduma horretako irudi batekin eginga da), nahiz eta, munstrokeriak erakutsiz beti ere, sorpresa ugari datorren barruan.

Aipagarria, Paco Pometen lan piktografikoa ere. Egunerokotasun hutsa diruditen egoeratan errealitatetik at dauden elementuak margotzen ditu Pometek eta bere arte surrealistan harrapatzen du ikuslea. ■

Etxahun-Barkoxe *Egan-en aztergai*

EGAN aldizkariak Pierre Topet-Etxahuni eskaini dio azken zenbakia. Besteak beste, Jon Etxaide, Jean-Louis Davant, Patri Urkizu, Jean Haritschelhar eta Patxi Salaberri Muñoaren idatziak bildu ditu Euskalerraren Adiskideen Elkarteko euskarazko agerkariak.

Horrez gain, Josune Beldarrain Agirre eta Genaro Gomez Zubia EHUKO irakasleen eskutik paratutako *Esoporen berrogei alegia, Errai-mun Olabidek euskarara itzuliak* lana dugu zenbaki honetan aipagarri. ■





Rachmaninov aldarrikatuz

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAK, bere abonuko bosgarren kontzertuarekin, aukera ematen digu gogoeta egiteko, konpositore errusiar ezagunenetako bati buruz, munduan aski ezaguna den Sergei Rachmaninovi buruz hain zuzen ere. Zergatik gogoeta edo hausnarketa hau, hain ospetsua eta entzuna bada? Arrazoi batengatik: kritikak beti gutxietsi duelako konpositore gustagarri hau, agian publikoak maite-maite egin duelako haren musika (hori txarra al da?), edo, agian, bere garaiko abangoardian ez egoteagatik. Azterketa txiki bat merezi dute bi kontsiderazio hauek, batez ere azkenekoak. Abangoardiako produktuak (beti ulertzen den moduan) bermatzen al du kalitatea, edo haren transzendentzia? Zenbat aldiz ez ote dugu kaskarkeria besterik aurkitzen modernitate etiketaren azpian? Rachmaninov, egia da, ez zen artista iraultzailea, baina inork baino hobeto jakin zuen uztartzen hilberria zen erromantizismoaren liluragarritasuna, harmonia eta orkestrazioaren ehundura berriak, Errusiako folklorea eta Estatu Batuetatik zetozen erritmo eta tendentziak. Horrez gain, garai guztietako entzuleek mirestu dute Rachmaninoven musika, eta piano-jotzaileek asko zor diote, instrumentu horretarako benetako perlak egin baitzituen errusiarrak.

Perla horietako bat entzun genuen abenduaren 13an Euskalduna Jauregian. Mozarten *Don Giovanni* operaren obertura (fin eta sentitua) jo ondoren, Rachmaninoven 3. kontzertua piano eta orkestrarako *Re minorrean*, op. 30 interpretatu zuen Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Günter Neuhold-en batutapean,

Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Günter Neuhold. **Bakarlaria:** Mateusz Borowiak (pianoa). **Egitaraua:** Mozart eta Rachmaninov-en obrak. **Lekua:** Bilboko Euskalduna Jauregia. **Data:** Abenduaren 13a.

eta Mateusz Borowiak piano-jotzaile poloniar gaztea bakarlaria izanik. Bertsio ederra izan zen, zalan-tzarik gabe. Mateusz Borowiak sari guztiak jaso zituen Maria Canals izeneko Bartzelonako piano lehiaketaren azkeneko edizioan eta, begi bistan geratu zenez, merezimendu osoz. Obraren deabrukeria guztiak erraz-erraz gainditu zituen, munduko gauza sinpleena izango balitz bezala, baina, horrez gain, kontzertuaren mami guztia atera zuen, indarra, lirismoa...

Hutsen bat aipatzeagatik, esan behar da konplikatua izan zela momentu txiki batzuetan bakarlariaren eta orkestraren arteko sinkronizazioa, baina, tira, edertasunak gainditu egin zuen. Propina bat bota zuen pianistak: Rachmaninoven *Étude-tableau* bat, zinez zaila, zinez erakargarria.



Saioaren bigarren zatian, Mozart erromantikoenaz gozatu genuen. 40. sinfonia *Sol minorrean*, K. 550, hain famatua, eta hain berezia bere erritmo bizi eta asaldurazko giroagatik, amaiera polita izan zen kontzertu pasionatu baterako. ■

Montserrat Auzmendi



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Eduardo Iturralde Gonzalez arbitroak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


9	3				2			
				5	6		2	8
6	2					9		
	8		6		5	4	3	2
		6	2		4	8		
2	1	4	3		8		7	
		3					8	7
5	6		8	2				
			1				6	3

Zaila

		1				2		
2			8					6
	4			3	6			
	7						8	3
3			7		8			5
9	1						2	
			9	1			6	
8					4			2
		5				7		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Hil. 2.-Martxo. 3.-Larru. 4.-Sosa.
5.-Oihu zoli eta luzeak.

Kike Amonarrizen umorea

Beti berandu

Ikasturtea hasi denetik Patxiku Txiki berandu iritsi da egunero ikastolara. Irakasleak ezin du gehiago:

– Patxiku!!! Gaur ere berandu? Horrelakorik gertatzen den azken eguna! Ez dizut gehiago onartuko berandu iristea! Jakin al liteke zergatik ezin



zaren ordurako iritsi?

– Nik ez dut kulparik, maisu! Errua ikastola aurreko biribilgunean dagoen erro-tuluarena da!

– Errotuluaren errua? Zein errotulu, ordea?

– Hortxe dagoen hori, maisu: “Eskola. Astiroago ibili”.



Soluzioak

Erraza

9	3				2			
				5	6		2	8
6	2					9		
	8		6		5	4	3	2
		6	2		4	8		
2	1	4	3		8		7	
		3					8	7
5	6		8	2				
			1				6	3

Zaila


		1				2		
2			8					6
	4			3	6			
	7						8	3
3			7		8			5
9	1						2	
			9	1			6	
8					4			2
		5				7		

Puzzlea:


“Kirol kultura falta zaigu, okerragoa da zorautua dauden gurasoz inguratutako muniti koskorren partida bat arbitratzea lehen mailan aritzea baino”.

5x5:

1. Zendu, 2. Epail, 3. Narru, 4. Dirua, 5. Uhuak.



Eric Dicharryren
Mugetaz
erakusketa
2013ko
urtarrilaren 6ra
arte dago ikusgai,
Euskal Museoko
Argialde aretoan,
Baionan.



Demokraziaren disfuntzioez, mugez, bakeaz, arteaz

MUGETAZ erakusketa kontzeptuala eta inaugurazio ekitaldiko performancea pista-joko baten jitean osatu ditu Eric Dicharryk. Etapaka egiten da espazioetan aurrera. Lehen gaindituta errazago ulertzen ahal da hurrengo erronka.

Bigarren espazioa ontzeko, kasura, *Maiatz* aldizkarian lehenagotik argitaratua zuen idatzia desegin, guztiz xehatu eta hura osatzen zuten hitzak orri banatan idatzita, txoko bateko paretan itsatsi zituen. Ikusleak, zabaltze ekitaldira azaldu ahala, lanean ipiniak zituen ordurako, eta erakusketaren osagai bilakatuak. Xehe-xehe egindako testu horretatik, ele saldo horren artetik, esanguratsuen zitzaien hitza hautatzera gonbidatu zituen lehenik. Gero, hitz hori paretatik askatu eta orria zimurtzera, pilota bat egitera. Azkenik, pilota hori paretaren kontra botatzera. Adibide bat jartzearen, Gabi Mouescak, publikoaren artean baitzen, “bil” hitzari heldu zion.

Era interaktibo honetan Herriari hitza ostu zaiola adierazi nahi zuen Dicharryk; politikariek nahi dutena egiten dutela herritarrei emandako hitzarekin, haien botoetatik jasotakoarekin. Demokraziaren disfuntzioarekiko ezadostasuna azaldu

beharra, horixe erakusketaren adar honen funtsa. Bazen gogoetarako bestelako ekintzarik ere, performancearen baitan, azaroaren erdialdeko egun hartan.

Gaur, orriak paretari josteko erabilitako agrafak besterik ez dira gelditzen erakusketako txoko horretan. Agrafak, eta paper festa horretatik espresuki utzitako bi hitz: “eskubiderik” eta “ertzean”. Gainerakoek, paper-ontzira doazen zakarren moduan, pila osatu dute lurrean. *Maiatz* aldizkarirako sortutako idatzi hori, hala ere, pantailan ageri zaigu, beltzaren gainean mugimenduan, Xabi Erkiziak erakusketarako sortutako erritmoaz lagunduta. Orduko publikoa ere beste pantaila batean ageri da, bakoitza bere orria eskuan duela. Baita Facebooken ere.

Aizkora hotsak entzuten dira garbiki. Izan ere, horixe du elementu nagusia Dicharryren erakusketak. Argialde aretoak kristalezko sabaipean osatzen duen hutsune biribilean bost aizkora ipini ditu airean, hari ia ikusezinez zintzilika. Jorge Oteizari keinu eginez (bitrinar ipini dituen liburuen artean ere ageri da bere obra), cromlecha dakarkigu gogora, eta artzainek esparrua

mugatzeko aizkorak lau aldeetara botatzen zituzteneko garaia, edo gatazka armatuak.... Espazio-denboran gure erroetara bidaiatzea proposatzen zaigu honenbestez, sinbolismoz beteriko lanabesa medio. *Bakea* deitu dio erdigunea den aizkora multzo honi, eta izatez, eskultura izendatzeko ideiaz areago, aldarria da, Euskal Herriko bake prozesua bultzatzeko bere proposamen artistikoa.

Mugetaz izenburua ipini dio Eric Dicharryk erakusketa multiforme eta parte-hartzaile honi, eta bitxia egiten da, hark ez baitu mugarik eza gutzen espresibideei dagokienez. Antropologoa da ikasketaz, ikerlaria ofizioz, eta arte kontzeptualean murgildu den sortzailea ere bada beharrez, filosofia korronteak eta filosofoak beti aldean dituena.

Ikertutakoen artean, Zuberoako Maskaradak, Euskal Herriko besta eta arte garaikidea, euskaldunon irria eta Hezkuntzaren ekologia ditugu aipagarrienak. Aurki, horietaz eta bestez mintzatuko zaigu elkarriketa batean, ARGIAko Kaieran. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea



Garoña ez da Fukushima izango... momentuz

LERRO HAUEK IDATZI eta ordu batzuetara Garoñako zentral nuklearra geldituko dute. Aitzakia da 2013an Espainiako Gobernuak ezarri behar dituen zergak direla-eta zentrala ez dela bidegarria izango.

Nuclenorrekin, Garoña kudeatzen duen enpresak, presio egiteko hartutako neurria omen da itxiera. Ez nintzateke harrituko urtarrean Garoña berriro martxan jarriko balitz. Ezta ere behin betiko itxierarako aurreikusita zegoen data –datorren urteko uztaila– gainditu eta oraindik urte batzuk lanean segituko balu.

40 urte pasatxo daramagu Garoñako martxan dugula, eta bere txarrean zorionekoak garela iruditzen zait, Fukushima-rekin gogoratu bainaiz.

Fukushimako zentral nuklearrean gertatutako leherketen irudiak ez ziren Dorre Bikiek erorketenak bezain gogorak izan, baina Japoniatik iristen zaizkigun berriek ezintasuna, etsipena eta deskontrola adierazten jarraitzen dute.

Gaur, oraindik, ez dakite zein den zentralaren benetako egoera. Langileek neurri batean baino ezin izan dituzte urgentziatzeko lanak egin. Japoniako lurra lehoinabarren azalen eran kutsatuta dago: hemen bai, hor ez, han bai, haratago ere bai. Gehiago edo gutxiago, Japoniako erdialde eta iparralde osoa ukitua dago. Fukushima-rekin probintzia osora ez ezik, erradioaktibitatearen sindromea Tokioraino ailegatzen da, eta gero eta handiagoa da, adibidez, tiroidean arazoak izan ditzaketen umeen kopurua.

Fukushimako zentrala, tsunamiaren ostean.



Garoñako zentral nuklearra, betiko geldirik?

Pertsona gazteek sortzen dute kezka nagusia, populazioa erradioaktibitate ahularen pean urteetan biziko baita, eta zientziak ez baitaki oraindik horrelako egoeretan zer eragin izango duen erradioaktibitateak. Japonia laborategi erraldoi bihurtu da, gizakiek saguarena egiten dutelarik.

Zorionekoak gu, egun batzuetan bederen Garoña geldirik izango delako. ■



Tipulazko lubrifikatzaileak

Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko zenbait ikertzailek, ohiko lubrifikatzaileek ingurumenean eragiten duten kutsaduraz kezkatuta, bide interesgarria aurkitu dute, non eta tipulan. Haren propietateak egokiak dira lubrifikatzailea izateko, eta ez du eragin kaltegarririk langileen osasunean.

ttiki.com/45612

(Gaztelaniaz)

Ozono geruzaren zuloaz beste teoria bat

Antartikan urtero sortzen den ozono eskasia konposatu kloro-fluoratuak egotzi zaie ia aho batez. Baina argitu gabe dago zergatik dagoen substantzia horien kontzentrazio handiagoa polo kasketetan. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko ikerlari talde batek teoria interesgarria eman du horretaz, Lurreko magnetismoan oinarrituta.

ttiki.com/45613

(Gaztelaniaz)

Gizonek eta andrazkoek desberdin aztertzen omen dute errealitatea

Bristolgo Unibertsitateko (Erresuma Batua) ikerlarien arabera, gizonek eta emakumeek alderdi desberdinak baloratzen dituzte errealitatea aztertzean. Ondorioz, gertaera fisiko edo teknologiko baten aurrean iritzi kontrajarriak izan ditzakete.

ttiki.com/45614

(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Mizpira gogorra

“MIZPIRA, AHORA GABE UZKIRA” atsoitiz ezaguna da. Sabelaldeko barrenak lasaitzeko ona izan... Esaera izaterainoko adina zahar bada mizpira (*Mespilus germanica*) gure kulturaren. Ez dut, ordea, bere aldaerak bereizten dituen euskarazko izenik ezagutzen. Izan, izan-

go dira, baina bidean galduak... Noski, inork baleki esan beza.

Santi Onaindiak (Amoroto 1909-1996 Zornotza) 1984an argitaratu zuen *Euskaldunak eta osasuna* liburuan mizpirari eskaintzen dio tarte polit bat eta bertan jasoa du esaera. Baita beste bitxi-

keria batzuk ere, hauxe bat: “*Osakai lez erabillirik, mizpillaren frutuak Erdi-Aroan be sukarraren kontrako onak ziran; barrua girotzeko ederrak dozu, esteen lana legetzen dabe-ta. Abazeria barik artu ezkeero, urdail sentikorrak be errez eroaten dabez*”.

Baita hurrengo hau ere: “*Azukera gainberatua dauko mizpillak, saponina ta beste sustantzi leungarri batzuek; beruzkoa aienatzeko ona dozu. Baita bizioai alde-eragiteko be. Ona mizpil-ur ego-kia, osakai lez; estutu mizpira frutu batzuk eta artu baraurik. Jarabe bai litzan ar daikezu*”.

Bizioari alde-eragiteak edo zapuztearenak begia jo dit. Lanak izan

ditut “bizioa” hitzarekin leho-
rrean egiteaz edo larrua jotzeaz ari zela jabetzen; Santi karmeldar fraidea izan zela jakin dudanean argitu zait. Sinesteak ere lanak ditu. Itxaro Bordak, aldiz, bere 2005eko *Zeruetako erresuma* liburuan “mizpira egurra bezain zut zeukan makila begiz jaten zion” eta “kotoizko frakak urratu eta mizpira makila bezain gogor zeukan abar gorraila aluan basaki sartu zion” dio txortaldietan.

Idazleenetatik haratago, gogorra da benetan mizpira. Mizpira arbola, alegia. Itxuraz (arantzaduna, okerra, bihurritua...) eta izatez (egur gogor eta iraunkorra du oso). Gogor izate hori txerto-oin izan ohi duen elorri zuriak (*Crataegus* sp.) eransten ote dio? Grekoko *krataegos* edo *kratos* hitzak horixe esan nahi du, indarra.

Bere haziak ere ez dira nola-nahi ernetzen. Gutxi batzuk lehen urtean jaioko dira, baina gehienek urteak behar dituzte babesten dituen hezur gogorra higatzeko. Horretarako azido sulfuriko beldurgarrian beratzen dituenik bada.

Euskal Makila zigor sonatua ere mizpiraren egurrez egiten da. Urte mordo batez lehortzen eduki eta gero. Eta inori jipoia, astinaldia, makilada edo egurra ematea, nola deitzen da? Mizpira-salda. ■



MONTILRE-CC BY SA



Mizpira (*Mespilus germanica*).



Xolomozko burrunzia

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermín Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián


© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Masturbazioaren aurkako zerealak

BAIN NEWS SERVICE



Ezkerrean, John Harvey Kellogg (1852-1943) mediku estatubatuarra. Alboan, Kelloggek sortutako zereal marka ezagunaren kaxa bat, 1950eko hamarkadakoa.



MICHIGAN (AEB), 1888. Battle Creek-eko Sendategiko zuzendari John Harvey Kelloggek *Auto-abusua*ren eta horren ondorioen aurkako tratamenduak, zahar eta gazteentzako datu argiak lana kaleratu zuen. Kellogg masturbazioaren aurkako ekintzaile sutsua zen. Gizakiaren gaitzik larrirenetakoa zen harentzat: “Izurriek, gerrak, baztangak nahiz antzeko gaixotasunek ez dute onanismoak adinako emaitza tamalgarririk eragin gizakiengan. (...) Uteroko minbizia, gernu aparatuko gaixotasunak, inpotentzia, zorotasuna eta ahultasun mental zein fisikoa eragiten ditu”. Tratamenduak ez bazituen ospitaleko gaixoak sendatzen, medikuak garbi zeukan zergatik: eri ezkutuan masturbatzen zen.

Baina masturbatzearen efektu txar guztiak saihesteko irtenbideak ere proposatu zituen liburuan. Mutiko txikientzat erremediorik eraginkorrena erdaintzea zen, batez ere ebakuntza anestesiarik gabe egiten bazen; zenbat eta oinaze handiagoa, orduan eta gogo gutxiago izango zuten bekatuari emateko. Neskatoentzat “sendabidea” are zuzenagoa zen: kliotoriaren fenol aratz bidezko ablazio kimikoa.

Zorionez, garaiko gizarte estatu-

batuar puritanoarentzat ere muturrekoegiak ziren Kelloggen neurriak, eta ez zuten aplikazio praktikorik izan. Baina sendagileak ez zuen amore eman onanismoaren aurkako gurutzadan, eta zeharkako bidea topatu zuen gizon-emakumeen irriskaltagarria apaltzeko: dieta.

“Txerrikiz, ogiz eta pastel gozoz elikatzen den, tea edaten duen eta tabakoa erretzen duen pertsonarentzat errazagoa da hegan egitea pentsamendu garbiak izatea baino”, zioen. Estatubatuarren dietak lizunkeria sustatzen zuela uste zuen, eta dieta garbiago batek bekatuak ere garbi zitzakeela. Hala, herrikideen elikadura ohiturak aldatzea erabaki zuen, baita goiz goizetik, gosaritik bertatik hasita, lortu ere. 1897an zereal integral deshidratatuak ekoizten eta merkaturatzen hasi zen. Eta 1906an zerealen inperio erraldoiaren lehen harria ipini zuen: Corn Flake Company sortu zuen. Gaur, eguneko 5,5 milioi pakete Corn Flakes kontsumitzen dira munduan. Baina masturbazioaren ondorioei buruzko Kelloggen teoriek inolako oinarri zientifikorik ez dituela enpirikoki frogatzen jarraitu du giza-dia. ■



Arrastoak

Medikuntzaren sekreturik garestiena

HERMAN BOERHAAVE (1668-1738) mediku, botanikari eta humanista holandarra Europa-ko medikuntzaren pertsonaia nabarmenetakoa izan zen bere garaian. Kontzeptu klasikoak eta XVII. mendean agertutako teoria patologikoak bateratzen saiatu zen, eta Leideneko Unibertsitatean hainbat katedra bete zituen. Bere ekarpenak bi lan nagusitan bildu zituen: *Institutiones medicae* eta *Aphorismi*.

Baina hil ondoren lan berezia utzi zuen oinordetzan: *Medikuntza artearen sekreturik eskusibo eta sakonena* izenburuko liburu zigilatua. Enkante publikoan saldu zen liburua, oraindik zigiluaz itxita, eta 20.000 dolar urretan ordaindu zituen erosleak, obraren egilearen ospeak eta lanaren titulu iradokitzaileak bultzatuta.

Jabe anonimoak zigilua hautsi zuenean, liburu ia hutsa topatu zuen. Lehenengo orrian ohar bat zegoen idatzita, baina gainerako orri guztiak garbi-garbi zeuden. Eta honelaxe zioen hasierako oharra: “Burua fresko eta oinak bero atxiki, eta munduko medikurik onena pobretuko duzu”. ■



JOHAN WILHEM KAISER

Alferrik galdutako urtea

Gasteizi egokitu zaio Europar Batasuneko hiriburu berdea izatea azken hatsa ematen ari den 2012 honetan. Ondo merezitako saria denik inork ez du ukatu; aldiz, kritika gogorrak sorrarazi ditu Udalak egindako hiriburutzaren kudeaketak: ingurumen politikari baino, marketinari adi egotea leporatu diote Javier Marotoren Gobernuari. 2013an, behin fokuak itzalita, ikusiko da noraino eusten dion Gasteizek berdetasunari.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Alex Larretxi

EUROPAR BATASUNAK 2008an sortu zuen Green Capital saria, ingurumena hobekien kudeatzen duten 200.000 biztanletik gorako hirientzat. Ondo egindako lanaren ordaina ez ezik, lan horretan jarduteko akuilu izateko ere ematen da hiriburutza. “Nik uste dut Gasteizek merezi zuela saria”, dio Andres Illanak, Arabako Ekologistak Martxaneko kideak, “baina orain

desengainatuta nago”. Illanaren sentipenak bat datoz beste talde batzuek Green Capital urteaz egindako balorazioarekin. Equo alderdiarentzat, adibidez, Arabako hiriburuak galdu duen aukera izan da saria. Beste batzuek, Bilduk eta Eguzkik esaterako, ezinegonatuta adierazi dute Green Capitalaren aitza-kiarekin egindako alferreko gastuak direla eta.

Ingurumenaren Sektore Kontseilua, zokoratuta

Gasteizek 2010eko irailean aurkeztu zuen hautagaitza Green Capital izateko, Bruselan. Handik hilabetera, Stockholmen, saria jaso zuen. “Ni ekitaldi bietan egon nintzen”, oroitu du Illanak; “Ingurumenaren Sektore Kontseiluaren [herritarren parte-hartzerako aholku-batzordearen] ordezkaria izan



nintzen, eta uste dut hori ere baloratua izan zela; gainerako hiriek ordezkari politikoak eraman zituzten, baina gizarte mugimendueta-ko inor ez”.

Desengainua ondoren etorri zen: itxuraz, saria nori eman erabaki behar zutenek estimu handiagoan zuten gizarte mugimenduaren parte-hartzea, Gasteizko agintariak eurek baino. Zehazki, Illana kexu da noiz eta Green Capitalaren urtean jaramonik ez zaiola egin Ingurumen Sektore Kontseiluari. “Pentsatu nuen 2012, besteak beste, gure lana aitortzeko baliatuko zutela, baina hara non, protagonismo berezia eman beharrean, guztiz kontrakoa jazo den: informazio eskaria egin dugun bakoitzean Udalaren webgunean begiratzeko erantzun digute”. Indarberritzeko balio behar zuen urtean inoiz baino funtzionamendu eskasagoa izan du Kontseiluak, Ekologistak Martxaneko kidearen esanetan.

Berdetasunaren gerizpean loratutako enpresak

Ingurumenaren arloan ibilbide luzea egin dutenak bazterrean utzi ditu Udalak, beste batzuen mesederako; hala uste du behintzat Andres Illanak: “Inoiz ez da dirulaguntzarik izan elkarte ekologistentzat, baina Ingurugiro Gaierako Ikastegiak aurtan egin du historian lehenbiziko aldiz deialdia, eta bitxia iruditu zaigu edonork parte hartu zezakeela: enpresak, norbana-koak, era guztietako elkar-teak... 2012ra arte zein 2013tik aurrera ingurumenaren defentsarekin harreman gutxi edukiko dutenak. Azalpena eskatu genion Udalari, eta esan ziguten helburua zela inplikaturaz ez zeudenak erakartzea. Jakina, inplikatu dira dirulaguntza egon delako”.

Illanak esandakoaren ildo bere-
tik, Eguzki elkarteak salaketa egin zuen urrian: Green Capitalarekin kolaboratzen zuten enpresak abantaila fiskalez gozatzen ari ziren, eta ondorioz gastu sozialetarako erabil zitezkeen hainbat zerga kobratze-
ari uzten ari zitzaion. Bestalde, Eguz-

kik gogor kritikatu ditu “Green Capitalaren ondorioz Gasteizen egin diren gehiegizko gastuak”. Horren adibide nabarmen modura jartzen dute arrakastarik batere eduki ez zuen eta, azkenerako, parte-hartzaileko 246 euroko kos-tua (guztira 93.000 euro) izan zuen *Greenkana* izeneko jolasa.

Askoren ustez, Gasteizek aukera galdu du ingurumen politika onak egiten segitzeko, eta Udalak hiriaren izena “saltzea” beste kezkarik ez du izan

Dirua gastatu da bai, baina sartu ere sartu dira sosak udal patriketa-
ra, Green Capital urtea beren buruen publizitatea egiteko erabili duten enpresen eskutik. Kontua da ea zertan erabili den diru hori, zenbait promozio ekitaldi ordaintzeaz aparte. “Ez dakigu”, dio Andres Illanak, “elkarteoi inork ez digu informaziorik eman; edozei-
nek hedabideen bitartez jakin dezakeena baino ez dakigu, eta hori kritikatzeko modukoa begi-
tanten zait”. Batzuetan sentsazioa egon da Udalak dirua lortu nahi zuela, baina ez ziola axolarik herriarren inplikazioak, diosku Illanak atsekabez.

Green Capital izendatua izateaz batera hainbat konpromiso hartu zituen Gasteizek, baina momentuz itxaron beharko da horien balorazioa egiteko, asko ez baitira urte bakarrean burutzekoak

Udaleko oposiziotik ere iritsi zaizkio kritikak PPK egindako Green Capitalaren gestioari. Bil-
duk, konparazio baterako, inguru-
men arloko politikak indartzeko baino, Green Capital marka hiri-
aren marketina egin eta turismoa
sustatzeko erabiltzea leporatzen
dio Udal Gobernuari. Equok eta
Eguzki ere egin dute kritika hori,
besteak beste.

Ingurumen politikak jarraipena izango du?

Equok, hain zuzen, adierazi du Gas-
teizek aukera galdu duela ingurumen
politika onak egiten segitzeko, eta
Udalak hiriaren izena “saltzea” beste
kezkarik ez duela izan. Hitzotatik
ondorioztatu daiteke ados daudela
behintzat hiriak Green Capital saria
irabazi izanarekin. Izan ere, hiri-
burutzaren gestio okerrari egin
zaizkio kritikak, baina inork ez
du zalantzan jarri Gasteizek
merezimendu osoz lortu duela
hiriburutza hori. Azken hiru
hamarkadetan egindako politikei
esker, Arabako hiriburua eredu-
garria izan da zentzu horretan,
beti ere zer hobetua dagoela
ahaztu gabe. 2013tik aurrera udal
agintariak ildo beretik segituko ote
duten, horra askoren zalantza.

Andres Illanak gogorarazi digu,
adibidez, Gasteizek hautagaitza aur-
keztu zuen ekitaldian, Bruselan,
EBko ordezkariak kargu hartu ziete-
la azken urteotan hiriak egindako
zabalkundea, eredu ez-jasangarrietan
oinarrিতua izateagatik. Alegia, biztan-
le kopuruaren gorakada ez zela nahi-
koa gainazalean hainbesteko haz-
kundea justifikatzeko. “Hiriko
agintariak onartu zuten huts handia
egin zela zenbait auzoren hiri-orde-
namenduan, eta neurriak jarriko
zituztela hori zuzentzeko eta dentsi-
tatea handiagotzeko”.

Benetako eragina neurtzeko itxaron beharko da

Horrelako neurriak ez dira
egun batetik bestera gauza-
tzen, ordea. Aipatu dugun adi-
bidearen kasuan, izan ere, Uda-
laren egitasmoak garai hobeen
zain daude: ez dago dirurik
planak gauzatzeko, konpromi-
soa aurtan bertan egitea bazen
ere. Beste horrenbeste gerta-
tzen da Gasteizek, Green Capital
izendapena jasotzeaz batera, hartu-
tako beste konpromiso batzuekin.
Horregatik, esan daiteke goizegi
dela hiriburutza berdearen beneta-
ko balorazioa egiteko.

“Epe luzean baloratzekoak izan-
go diren beste adibide batzuk badi-
ra”, azaldu digu Illanak. “Esaterako,
kanpo eratzun berdea guztiz ixtea,
barne eratzuna egiten hastea...”.

Logotipoaren goroldioa, “ortografia huts” erraldoia



“UDALAK Green Capitalarekin egin zuen lehen hanka sartzea logotipoa izan zen”, iritzi dio Andres Illanak. Ekologistak Martxaneko kidearen ustez, ez da onargarria hiriburutza berdearen ikono nagusia izan dena, Andre Mari Zuriaren plazan ipinitako *Vitoria Gasteiz!* errotulu erraldoia (argazkian), Txiletik ekarritako

goroldio naturalez egin izana. “Surrealista iruditzen zaigu; urteak eta urteak daramatzagu jendeari eskatzen ez dezala mendiko goroldiorik hartu Gabonetan, asko kostatzen delako berriz haztea eta biodibertsitaterako berebiziko garrantzia duen landare delako, eta Udalak horixe bera egin du”. Agian ez da anekdota

baino, baina anekdota adierazgarria, Illanaren ustetan: “Donostiaren kultur hiriburutzaren logoan ortografia huts bat egotearen parekoa da”.

Eguzki talde ekologistak ere kritika egin zion logotipoari, eta galbidean dagoen espezie batekin (*Sphagnum magellanicum*) egin zela gogorarazi zuen.

Eraztun berdearen proiektuaren helburua da balio ekologiko handiko gunez osatutako etengabeko espazio bat sortzea, hiria guztiz inguratuko dutena. Barne eraztunaren egitasmoa, berriz, aurtan bertan aurkeztu da, Green Capitalaren oihartzuna baliatuz hain justu. Funtsan, Gasteiz Hiribideari itxura “berdea” ematean datza (landaredia, animaliak...).

“Mugikortasuna da hiriko ingurumen politiken beste gako bat”, jarraitu du Illanak, baina Mugikortasun Jasangarriaren Foroa geldirik egon da orainsu arte”. Izan ere, arlo horretan egitasmo handinahia du Gasteizek, aurtan gauzatzekoa zena

baina momentuz hastapenetan baizik ez zena: super-etxaldeak. Hots, hiriko zati handiak itxi trafikoari, bertan bizi direnei eta zama-lanetan aritu behar direnei izan ezik. “Helburua da ez dadila horra sartu bertara propio ez doanik, zeharkatu besterik egin behar ez dutenek inguratu dezatela, eta horrela oinezkoentzat, bizikletentzat... irabazi dadila espazioa”. Illanaren esanetan, berandu hasi badira ere, ematen du bide onetik doala plan horren gauzatzea.

Datorren urtearen zain

“2012an gertatu dena gertatu dela ere, nire benetako beldurra, hasiera-hasieratik, 2013 izan da”, aitortu

du Andres Illanak. Orain denen ahoan dauden mugikortasun jasangarri politiketarako aurrekontua egongo da datorren urtean? Eta eraztun berdeak amaitzeko? Hiria- ren hegoaldeko ibaiak gainezka ez egiteko proiektuak abiaraziko dira? Egitasmo garestiak dira, eta udal aurrekontuetan %12ko murrizketak iragarri dituztela dio Illanak. “Green Capital igaro da jada. Ni, batez ere, datorren urteko ingurumen politika zein izango den jakiteko irrikan nago”.

Orduan jakingo da benetan hainbeste neoizko argik zerbaite- rako balio izan duen. ■



«Esaten da Euskal Herria aro berri batean sartu dela, baina euskararena denek ahaztu dute»

Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia da. Donostiako manifestazioa igaro berri, eta José Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak lege proiektua aurkeztu eta segituan elkarritzketatu dugu. Werten “zartakoak” esnatuko ote gaituen galdetzen du, hots, euskarak behar duen zentralitatea hartuko ote duen behingoz.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco



Martxoan Deiar dar manifestazioa Baionan, abenduaren 1ean Donostian. Kalera atera beharra al dago?

Hirugarrena erantsiko nuke: duela bi urte Iruñean egin genuena. Beharra? Manifestazio bakoitzak bere ezaugarri berezitua izan du. Donostian, gehienbat, euskaraz bizi nahi duen herria badagoela erakutsi nahi genuen, ez zen ezereen kontrako edo ezer salatzeako manifestazioa, autoafirmaziorako baizik. Euskaraz bizitzeko hautua egin duten herritarrak badaudela azaldu nahi genuen, euskaraz bizi nahi duenaren harrotasuna irudikatu. Herritarrak haien hautuaz harro daude, pozik.

Salaketa baino, bizi nahia. Beste bi manifestazioetan zer zen bereizgarri?

Iruñakoak egoera zehatzari erantzun zion. Denok ezagutzen dugu Nafarroako Gobernuak daraman hizkuntza politika glotozida. 2009ko abendu inguruan Gobernuak hainbat diru-laguntza kentzea erabaki zuen eta Kontseiluko hainbat bazkidek irmo erantzuteko momentua zela esan zigun.

Baionakoan ere “Euskaraz bizi nahi dut” agertu nahi genuen. Uste dugu herritarrek oso ondo ulertu dutela mezua. Hitz egin dezakegu hizkuntza politikaz, normalizazioaz (eta hitz egin behar da, hizkuntza ere politika da eta), baina herritarrei esaten badiezu: “Euskaraz bizi nahi dut”, jarraian ulertzen dute.

Mezuarekin asmatu duzuela uste duzu?

Nik uste dut baietz. Donostiako manifestazioari begira, kanpaina komunikatiboa hor kokatu genuen gehienbat. Euskaraz bizitzeko hautua egin duten herritarrak izan dira protagonista. Euskaraz bizitzeko oztopoak partekatu dituzte gurekin, baina hala ere, mezu positiboa bidali dute: “[Oztopoak oztopo] Guk, hala ere, euskaraz bizitzen jarraitu nahi dugu”. Normalizazio prozesuan baldintza sozial egokiak lortzeko herri gogo indartsua behar dugu. Azken finean, nork egin ahal dio uko euskaraz bizitzeko nahiari? Duintasunez bizitzea euskaraz bizitzea da guretzat. Muturrera eramatea da, baina nork ukatuko digu bizitzea? Horregatik, saiatzen gara

hori adieraziko dutenak herritarrak izaten. Paul Bilbaok, edo bere garaian Xabier Mendigurenek, hitz egitea... Mesiasik ez dugu behar. Herritarrak enpatia lortzen du bere egoera bizi duen beste batek kontatzen dionarekin.

“Hitz egin dezakegu hizkuntza politikaz, normalizazioaz, baina herritarrei esaten badiezu: ‘Euskaraz bizi nahi dut’, jarraian ulertzen dute”

Azken urteetan, zein measurekin eta nori zuzentzen gatzazkion, ez dugu erreparatu behar bezala. Badi-rudi instituzioei zuzentzen gatzazkiela. Norabidea apur bat aldatzea erabaki dugu. Herritarrei erantzun-go diegu, haiek daudelako erabakiguneetan, sindikatueta, alderdi politikoetan... Kontseilua makroan dabil, alderdi politikoekin, sindikatu-ekin bilduz... baina eraginkorragoa izan daiteke herritarrek beraien erabakiguneetan eragiten badute.

“Nor bait kanpotik badator eta ikusten badu herri horretan euskara normaltasunean bizitzeko nahia dagoela, sartuko da, ez da diskurtso politiko maiestatikorik behar”

Denetarik mezuak entzuten ditugu herritarrok: batzuetan apokaliptikoak, besteetan euskarak salbatuta dagoela dirudi.

Apokaliptikoarena guri leporatu izan zaigu. Denbora guztian esaten baduzu, “hau txarto doa”, tipularen azal urrunenean dagoen sektorea (euskara lehentasunen artean hamaikagarren jarria duena) ez duzu erakarriko. Kontrakoa ere ger-

tatzen da: “Gure hizkuntza berreskuratu dugu”. Horrek zer esan nahi du? Erlaxazioa. Horregatik, “Euskaraz bizi nahi dut” horretan kokatuta, herritarrak berak hartzen dio tenperatura. Zeraingo edo Lapuebla de Labarcako euskaldunak, euskaraz bizitzetik bere ondorioak atera ahal izango ditu.

Zergatik esango du herritarrak euskaraz bizi nahi duela? Identitatearekiko atxikimenduak ez du lehen bezain besteko indarrik jendea euskara ikastera eta erabiltzera bultzatzeko.

Identitatearekin lotutako jendeak euskaldundu al du bere burua? Neurri handi batean bai. Seguruenik errazagoa da motibazio identitarioa duena euskalduntzea, eta ez Badajozetik edo Pernambukotik etorri dena. Tipularen muinetik hasi behar dugu eta gero etorriko dira azalak. Norbait kanpotik badator eta ikusten badu herri horretan normaltasunean bizitzeko nahia dagoela, sartuko da, ez da diskurtso politiko maiestatikorik behar. Hezkuntzan adibidez, normalizat hartuko dute ikastetxean euskaraz ikastea.

Inkesta soziolinguistikoa eta kale erabileraren datuak jaso ditugu aurren. Zein da zure balorazioa?

Datuek erakusten dute bagoazela, eta datuek erakusten dute gabeziak daudela. Betiko mataza dago, eza gutza eta erabilera. Kale erabilerako datuek emandakoa azpimarratu nahiko nuke. Ez nago ados “euskalduna da euskaraz ez egitearen erantzule” mezuarekin. Ez dut ukatuko euskaldun batzuek ez dutenik erabiltzen, baina hortik esatera euskaldunak direla egoeraren erantzule jauzia dago. Askotan euskara ez da erabiltzen ezin delako erabili. Mezu hori oso arrisksua da, zeren administrazioak neurriak hartzeko mezu hori har dezake kontuan.

Zergatik ez dute erabiltzen euskara? Ezagutza tasak baldintzatzen du; zer egin hiru euskaldun eta erdaldun bat elkartzen direnean, lis-karrean hasi euskara gailendu dadin... Jauziak eman behar dira ezagutza tasan eta espazioak euskalduntzeko neurriak hartu, bestela zaila ikusten dut erabilerari buelta



“Baldintza politikoak egokiak dira erabaki ausartak hartzeko. Azken Jaurlearitzak askozaz babes gutxiagorekin nahi izan dituen erabakiak hartu ditu”

Espainiako Hezkuntzak aurkeztu duen lege proiektua dela eta: “Gure egoera hauskorra da, kanpo faktore bortitzen batek eragiten badigu ez daukagu eusteko aukerarik. Noiz eraikiko dugu honi guztiari aurre egiteko harresia?”.

ematea. Ez gara bizi gure lagunekin pote bat hartzen edo kartetan bakarrik, gizarte batean bizi gara eta gauza asko egiten ditugu. Azken urteotako akatsa izan da ezagutzen fokalizatzea. Espazioak ahaztu ditugu; eremu sozioekonomikoa eta aisialdia, adibidez.

Baldintza politikoak nolakoak dira erabakiak, neurriak hartzeko?

Baldintza politikoak egokiak dira erabaki ausartak hartzeko. Azken Jaurlearitzak askozaz babes gutxiagorekin nahi izan dituen erabakiak hartu ditu, besteak beste, kontsumitzaileen dekretuarena eta marko hiru eledunarena. Haiek baliatu

dute aukera. Dena dela, boterea baliatu behar da, baina etikoki. Ezin duzu boterea erabili inoren kontra egiteko, baina Jaurlearitzak erabili du euskaldunon kontra egiteko. Jaurlearitza berriak boterea erabili behar du ez inoren kontra egiteko, baizik eta euskaraz bizitzeko nahia dutenak asetzeko.

Zer daukazu esateko Wert ministroaren lege proiektuaz?

Astakeria da, atzerapauso ikaragarria. Zer itzuli behar dugu, orain dela 40 urteko errealitatera? Oso garbi daukat lege hori egonda ere, herrigintzak eutsiko diola murgiltze ereduari. Garai makurragoetan

eutsi izan zaio eta orain ere herri gogoak eutsiko dio erasoari.

Beti esaten dugu mezu apokaliptikorik ez dela eman behar, baina gure egoera hauskorra da, kanpo faktore bortitzen batek eragiten badigu ez daukagu eusteko aukerarik. Noiz eraikiko dugu honi guztiari aurre egiteko harresia? Irakaskuntzako eragileekin egon naiz eta inork ez zuen espero. Curriculumarena bai, erlijioarena bai, baina hizkuntzarena ez. Sustoa izan da.

Nire kezka da, hau ez ote den gaztelaniaren aldeko lege baten aurrekaria. Seguru nago badatorrela gaztelaniaren legea. Horrek autonomia erkidegoetako eskumenak eta ofizialtasuna apurtzen ditu. A ereduaz gain B eredu moduko bat nahi dute. Auzitegi Konstituzionalak dotrina jarrita dauka: sistema batek ez badu hizkuntza ofizialaren eza gutza bermatzen legez kanpokoa dela. Ea behingoz euskarak zentralitatea hartzen duen.

Zer esan nahi duzu?

Hau gertatu behar da jendea ohar-tzeko? Euskarak ez du inon inolako zentralitaterik. Azken urteetan, Kataluniak erabaki ausarta hartu duen bakoitzean zartakoa etorri zaio Estatutik: estatutua dela, hainbeste urtez indarrean egon den hezkuntza sistema dela... Zer uste dugu, gurekin ez dutela berdin jokatuko? Beraz, jar dezagun euskara behar den tokian.

Hemen esaten da Euskal Herria aro berri batean sartu dela eta tar, tar, oso polita, baina euskararena jende guztiak dauka ahaztuta.

Badirudi euskararena zer edo zer abstraktua dela. Hizkuntza eskubideak etxebizitza eskubidea bezala dela dirudi, eta sentitzen dut, baina ez da hala. Hizkuntzak, lehen eta orain (Katalunian) jasan-

Euskaltegiak ez daude beteta

“Kezka ez da aurtengoa bakarrik, baina aurten argi gorria piztu da. Gure herrian oraindik berezko hizkuntza ikasteko ordaindu egin behar da. Hori ezin da onartu. Nazioarteko instituzioetan esan dudanean Euskal Herrian euskara ikasteagatik ordaindu egiten dela, jendea harritu egiten da.

Bestalde, ez dago euskara ikasteko beharrik. Zein motibazio izan dezake pertsona batek euskara ikasteko? Orain, oso modu perbertsoan ari dira saltzen diskurtsoa: ingelesa ikasi behar duzu, zeren hemendik gutxira alde egin beharko duzu herri honetatik. Gurasoei esaten diote: “Zure alabak ikas dezala ingelesa edo alemaniera”. Guk kontrako diskurtsoa egin beharko genuke: Zure semeak edo alabak euskara ikasten badu eta euskalduna bada, aukera gehiago izango ditu Euskal Herrian geratzeko. Euskaltegiek haxe pairatu dute: “Ez duzu euskara behar administrazio publikoan lan egiteko, ez duzu behar euskara...”.

Administrazioarentzat helduak euskalduntzea inoiz ez da izan estrategikoa. Ez da inoiz planteatu zer egin behar den 20 urtetik 60 urte artekoak euskalduntzeko. Eta helduak euskaldundu egin behar dira”.



dakoak ez dira gertatu etxebizitzarekin edo beste oinarritzko eskubideekin.

Beste hainbat gatazka egoera ikertu duzu.

Hegoafrikan zer gertatu zen? Gatazkaren konponbidea pil-pilean zegoenean, prozesua ia pikutara joateko arrazoiak bat hizkuntza izan zen. Zortzi hizkuntza dira orain ofizial. Gogor egin zuten ama hizkuntzan hezkuntza jasotzeko eskubidearen alde, nahiz eta kolonizatzaileek ez zuten onartu nahi.

Indonesia, Sudan, eta beste hainbat herrialdetako adibideak ikertzen aritu naiz eta aditu denek gauza bera diote, alegia, hizkuntzarena ez dela inon azaleratzen.

Europako erakundeetan geure etxe-ko erakundeek hizkuntza eskubideak

ez dituztela errespetatzen esateak zertarako balio digu?

Gure hizkuntzaren berreskuratzea Euskal Herrian jokutzen dugu. Europara joan behar da? Nazio Batuen Erakundera (NBE) salatzerara joan behar da? Bai, baina han ez digute konponduko. Zergatik da ona hara joatea? Batetik, inongo estaturi ez zaio gustatzen Europako kontseiluak edo NBEak belarritik tira egitea: “E, txo, hau ez da horrela”. Beste gauza bat da egiten dizkieten gomendioak betetzen dituzten. Ikusi dugu zer gertatu den Eurokartarekin. Euskalerria Irratia da horren adibidea. Bestetik, eskubidea daukagu halako instituzioetan benetako egoera zein den azaltzeko, bestela badakigu estatuek zelako astakeriak botatzen dituzten. ■



«Eztanda entzun orduko haize beroak laztantzen gintuen»

Luis Irondo artista gernikarrak 1937ko bonbardaketaren oroitzapen gordinenak ditu bilduta hamasei orrialdeko testu argitaragabea. Pasarte esanguratsuenak ekarri ditugu hona.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

“NI LUIS IRIONDO naiz. 89 urte ditut eta Gernikako bonbardaketa bizi izan nuen. Hamahiru urte nituen orduan. Ama, aita eta hiru anai arrebe-kin bizi nintzen familia umil batean, aitzak ikaztegia zuen eta amak altzairu denda.

Gerraren berri hondartzan izan nuen lehen aldiz. Hori gertatu eta denbora gutxira jakin genuen Gernikatik hurbil zeuden herri batzuk bonbardatu zituztela, besteak beste, Durango. Horrek eragina izan zuen herritarrengan, berehala, badaezpada, babeslekuak eraikitzen hasi ziren. Denon ahotan zegoen. Apirilaren 25ean, esaterako, nire lagun Ciprik esan zidan bazuela babeslekua bonbardaketa baterako prestatua, eta gertatzen bazen korrika hara joateko.

Hurrengo egunean bankura joan nintzen, eta bertan nengoela kanpai soinua entzun nuen. Hegazkinen abisua zen, gertu zeuden, agian gainean. Hala zen, herriaren gainean zeuden. Laster alde egin nuen bankuko langile batekin babesleku bila. Merkaturia egiten zen gunea pasa bezain laster hasi ziren eztandak. Jendea korrika oroitzen dut, oihuka. Eraikitako gune haiek lur azpian zeuden, eta horietako batean sartu ninduten, bultzaka. Sabaia baxua zuen eta bero handia egiten zuen, horren ondorioz, minutu batzuen buruan arnasa hartzea ere kosta egiten zitzaigun.



Goian: Luis Irondo, berak sortutako *El Cristo de Gernika* irudia atzean duela. Behean: Gernika kiskalita.

Makurtzeko esan zigun bertan zegoen gizon batek, behealdean oxigenoa hartzea errazagoa zelako, eta hala egin genuen. Cipri, nire laguna, oroi-

“Babeslekuak sabaia baxua zuen eta bero handia egiten zuen, horren ondorioz, minutu batzuen buruan arnasa hartzea kosta egiten zitzaigun”

tu nuen han egon nintzen denbora osoan; hegazkinak ikusten ariko zen aurreko egunean esan zidan txokoan, inbidia ematen zidan hori pentsatzeak. Hurrengo egunean eskolara joatean berak ikusitako guztia kontatzeko aukera izango zuelako nik ez bezala.

Eztandak amaitu zirenean kalera irten ginen, baina berehala hasi ziren berriro ere. Jendea korrika zebilen batetik bestera leku seguru baten bila. Gero eta gertuago entzuten zen bonben soinua. Eztanda bat entzun orduko haize beroak laztantzen gintuen. Erreza-tzeari ekin nion, baina hegazkinak alde egingo ez zutela zirudien.

Amaitu eta kalera irten nintzenean beldurtu egin nintzen. Herri osoa sutan zegoen eta zerua hodei ilun batek estaltzen zuen. Ez nekien betiko amaitu ziren bonbardaketak ala ez, eta lasterka joan nintzen Lumoko errepi-dera. Gernika osoa sutan ikusi nuen bertatik. Cipriren txokora iritsi nintzen baina ez zidaten pasatzen utzi.

Etxeko guztiak aurkitu nituen denbora batera, eta aita gure etxea nola zegoen ikustera joan zen. Guztia suntsituta zegoen. Gernikatik alde egin genuen orduan, Bilbora eta ondoren Frantziara. Gure herrira itzuli gine-nean jakin nuen Cipri, nire laguna, bonbardaketa hil zela”. ■



Arabian 2013ko Euskara Saileko aurrekontua ez da erdira jaitsiko

Gipuzkoan laguntza gehiago euskarazko hedabideentzat

AURREKONTU PROPOSAMENA PPk baino ez du babestu, PSE-EEK, Bilduk eta EBk aurka bozkatu dute, eta EAJ abstenitu egin da. Euskara alorreko eragileek arnasa hartuko dute momentuz, PPren proposamena 2013ko aurrekontua erdira jaitea baitzen. PP 2011tik ari da gobernatzen Arabako Foru Aldundian. Bi urtean aurrekontu orokorra %24 murriztu du, euskararena %66. 2013ko aurrekontu proiektua onartu izan balitz Euskara Sailak 2011n baino milioi bat euro gutxiago jasoko zuen.

Murrizketa proposamenak bete izan balira panorama honelakoa izango zen:

Kolperik handiena kuadrilletako euskara teknikarien sarearentzat zen: 2013an ez zatekeen euro bat ere bideratuko sail horretara. 2012an 233.000 euro bideratu ditu eta 2011n 245.000 euro.

Beste sail batzuk ere 0 eurotan geratzekoak ziren. Euskarari buruzko

mintegiak egiteko 0 euro (2012an 10.000 euro); Merkataritza eta Industria Ganberak ere sosik ez (2012an 25.000 euro); Geu Gasteizek eta Eusko Iker-ek ere batere ez. Lehenengoak 2011n eta 2012an 9.000na euro jaso ditu eta bigarrenak 3.000 euro inguru.

Beste sail batzuek desagertuta jarraituko dute, 2012an bezalaxe: Udaletan euskara sustatzeko planak; Nafarroa Oinez eta Herri Urrats; Topagunea, eta euskara elkarteetan ondasun inbertsioak egiteko.

Murrizketa galantok bertan behera geratu dira, baina horrek ez du esan nahi aurtengo aurrekontuak 2013an bere horretan mantenduko direnik, bai ala bai. Oposizioak onartu du aurrekontu luzatuetan murrizketak egiteko aukera izaten dela. Topaguneak oposizioko alderdiekin hitz egin du eta lau alderdiek hitz eman diote 2012ko diru partida babestuko dutela.

FORU ALDUNDIKO Euskara Zuzendaritzak diru-laguntzak handituko dizkie 2013an udalei, helduen euskalduntzeari eta euskarazko hedabideei. Dena dela, Euskara Saileko diru zakua 2012ko bera izango da; 3,3 milioi eurokoa, alegia.

Diru-laguntza lerro ohikoaz gain, lankidetzaz hitzarmenak indartuko ditu Euskara Zuzendaritzak. Zigor Etxeburua Euskara zuzendariak hitzarmen horietako batzuk aurreratu ditu: Galtzagorri, Mintzola, Elkartea, Aztibegia, Soziolinguistika Klusterra, *Jakin*, UEU, Universitas Vasconum, Bai Euskarari Ziurtagiria, Gipuzkoako eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartea, Urtxintxa Elkartea, *Elbuiar*, Eusko Ikaskuntza, UZEI, UEMA, Topagunea eta Euskaltzaindia. Hitzarmenetarako %14 diru gehiago jarriko dute. *Berriari* eta Kontseiluari diru-laguntza berezia emango zaie estrategikoak direla iritzita. Lehenengoak 50.000 euro jasoko ditu eta bigarrenak 40.000.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Pobrezia eta desberdintasun politikak

GOBERNUEK garatu dituzten politikek –europarrak, espainiarrak, EAEkoak eta nafarrak– Hego Euskal Herria pobreziarantz eta desberdintasunerantz darabate. Hori leitu daiteke Lópezen Gobernuak ezkutatatu eta orain ELAk argitaratu duen inkestan. *Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta 2012* lanak aditzera ematen du, biztanleen %7,3 pobrezia arriskuan bizi dela (2008an baino %77,9 gehiago) eta %2,12 gose dela. Hala, kuriosoa da Hego Euskal Herria Europar Batasuneko eskualde aberatsenen artean egotea, eta aldiz, 2012an 157.686 lagunek behar oinarritzkoenak asetzeko nahikoa diru-sarrerarik ez izatea. Gainera, inkestaren arabera, elikatzeko arazo larriak dituzten pertsonak 100.000tik gora dira jadanik. 46.122 lagunek adierazi dute gosea pairatu dutela –2008tik %116 hazi da datu hori–, hau da, familien %2,1ean. Pobreak eta bazterketa sozialak gehiago eragiten die immigrantei. “Logikoa” da Lópezen Gobernuak inkesta alfonbra azpian sartu

izana, datuak jasangaitzak baitira. Azken 25 urteetako okerrenak!

Egoera horren arduradun gobernuak dira, ez dituztelako langabezia gutxitzeko neurriak hartu, eta laguntzetan, soldatetan eta pentsioetan murrizketak eragin dituztelako. Baina bestaldetik, jada 216.000 milioi euro txertatu dituzte bankuetan. Etorkizunak ez dirudi hobe, politika kapitalista horiek ezabatze-ko aldaketa sakonik egon ezean. Egungo EAJren Gobernuak –eta gainerako alderdi politikoek– 180 graduko bira egin beharko lukete politika fiskalean, gure herriaren subiranotasun politikoaren eta ekonomikoaren defentsan, baita lan harremanetarako eta babes sozialerako esparruaren defentsan ere. Bide horretatik dezente gutxitu ditzakegu egungo pobrezia eta desberdintasun sozialak.

Juan Mari Arregi



Greziarrak berotzeko mendiko egurra eta elkartasuna

Negua gorri dator berriro Grezian. Herrialdea osorik kiebran, nekeak aski ez baziren orain gasolioaren prezioak denetan itzalarazi ditu kalefakzioak. Berorik ez da eskoletan, ospitaleetan, lantokietan... etxeetan. Ahal duenak egurra erretzeari ekin dio, basoen kalterako. Hala ere, elkartasun ahaleginak ugaritzen dira herri eta hirietan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HIRU MUTIKO, 5, 7 ETA 15 URTEKO kiskali dira abenduaren 8an Mesoropin, Kavala hiritik gertu, zaharrena bi txikiak ateratzeko ahaleginean. Hiru senide gehiago onik atera dira, aitona-amona eta gurasoekin hamaurrekoa osatzen zuten familian. Gasoliozko berokuntza iaz itzali zuten erregaia %40 garestitzeagatik eta supazterra piztu; honen garrek hondatu dute familia.

Sutarako egurra izan daiteke Greziak bizi duen amesgaiztoaren ikurretako bat. Negozio biribila dagiten enpresa bakarrak egur banatzaileak dira. *Rue 89* webgureako lekukotasun bila joandako Zineb Dryef kazetariari Atenasko zentroan txantxetan bota zion batek: “Lehen esaten zen ‘zatoz, neska, *Porsche Cayenne* bat daukat’, diru errazaren urteak ziren; orain esaten zaio ‘etorri, neska, etxean sua daukat’”.

Grezia Mediterraneo bazterreko hondartza epela baino gehiago mendialde hotza da neguan. Kalefakzioa gehienetan elektrikoa da edo gasoliozkoa. Argindarra garestitu denaz gain, Gobernuaren erreformetako batek gasolioa litroko 95 zentimoetatik 1,35 eurotaraino eramendu.

Atenasko agintariak zerga berria ezarri diote berotarako gasolioari. Aitzakia, iruzurak: etxetarako

erregaiak zerga apalagoak edukiz txofer askok espekulatzen omen zuten horren kontura, Greziako bost autotatik bat erregai horrekin omen zebilen. Orain etxean erretzekoak kotxeek darabiltenaren prezio bera dauka, ezin ordainduzkoa gehienentzako.

Herri txiki eta landa-guneetan greziarrak errazago egokitu dira antzinako ekonomika, beheko su eta estufetara, basoak ere eskueran edukiz. Hirietan gero eta sarriago aurkitzen omen dira inausiriko edo gerritik ebakitako zuhaitzak, berdin parkeetan, kale bazterretan edo baratze pribatueta.

Egur saltzaileak ugaritu dira edonon, batzuetan Grezia iparreko basoetatik dakartenak eta sarri Bulgariakoetatik inportatzen dutenak. Baina sutarako egurrak ere txistua egiten du gaur Atenas edo Tesalonika bezalako hirietan, iaz tonako 60-65 euro egiten zuena aurten 150 edo 200etaraino ere iristen baita.

Zuhaitz mozketa ilegalak ere hala ugaritu dira denetan. Broma maite duela erakutsiz, Greziako Ingurumen ministerioak telefono zenbaki berri bat ezagutarazi du delituok salatzeke... eta beste eskuarekin legea aldatu egur mozketa ilegala huts egite txikiekin parekatzeko. Horri gehitu azken hiru urteotan

O Allos Anthropos (Bestelako gizakia) guneko argazkian, grekerazko hizkiek diote “Janariak doan guztiontzako” eta “O Allos Anthropos auzolaneko sukaldea”. Atenasko Eixarkia auzoan herritar batzuk hasi ziren etxean egindako otorduak eskaintzen zabor kontainerretan aztarrika ari zirenei. Otordu eskean hainbeste zetozenez, auzoko merkatariei eskatu zieten gero jeneroa. “Baina —diote beren aurkezpenean— azkenean erabaki genuen kalean kozinatu eta jatea, denok elkarrekin. Horrela denon artean hausten dugu norbaitek hurbiltzeko eduki dezakeen lotsa. (...) Bizilagunarekiko elkartasun eta maitasun adierazpenezko ekintza da, beste jende eta taldeek antzera egingo duten itxaropenean. Ez da filantropia, ez karitatea. Elkarrekin prantatu, elkarrekin jan, elkarrekin bizi. Otordu bat gure bizilagunarekin kalean. Zatoz gurekin egun bakoitza ederragotzera”. Ederra.

basozainen kopurua arras txikitu dela Greziako mendietan, Europako *Troikaren* aginduz.

Ekologistak eta oro har ingurumenaz kezkatuak haserre daude, lehendik desertifikatze bidean dagoen Greziak azken oihanak gal ditzakeelako bidean, honek dakartzan ondorio guztiekin. Baina nor akordatu da ekologiaz jendea Eguberrietan etxea nola berotu asmatu ezinik dabilenean?

Biziraupena antolatu

Larrialdiak orokortzen duen “dena gal bedi eta nirea salba bedi” giro horretan badira, ordea, guztien biziraupena elkartasunean bermatzeko ahaleginak. Gurera tantaka iristen dira horien hotsak. Greziarren berri beren idatzietatik jakitea ez da erraz, darabilten hizkuntzaz gain idazkera ere arras ezberdina daukatenez. Adibide batez argitzeko, kronika hau irudiztatzen duen argazkia Googlek ez dauka indexatuta gure hizkietan, itzultze tresnak baliatuz grekerazko hizkiekin galdetu behar diozu. Zenbat horrelako informazio eder ez zaigu inoiz iritsiko?

Britainia Handiko ezkertiarren erreferentzietakoa den *Red Pepper* aldizkarian Tonia Katerini Syriza partiduko kideak azaldu du elkartasun *gorriaren* zenbait osagai *Organising to survive in Greece* kronikan.



%25 dira langabetuak Grezian, gazteen artean %48, krisiaren aurretik industria zeukaten eskualde batzuetan %80 ere bai. Industria handiak alde egin du, Coca Colak, Carrefourrek... 170.000 enpresa txiki itxi dira hiru urtetan, ezin zaie finantziatorik aurkitu, Europatiko diru guztia bankuentzako.

Langabetu gehienei aspaldi amaitu zitzairen subsidio oro. Familiaren eta lagunen sarea dute azken babes, baina hau ere mugaraino agortu du krisiaren luzeak. Lana dutenei lepatu baitzaie soldata, batzuei laurdena, askori erdia, zenbait hiru laurden. Aldi berean prezioek gora egin dute, euroaren barruan egonik Greziak ezin du debaluaziorik egin. Marjinatu bakanez landa karrikan

inor bizi ez zen herrialdean 20.000 dira *homeless*ak.

Hurrengo hauteskundeetan gehiengoak lortuko duela dirudien Syriza alderdi ezkertiarren elkartasun sarean ari da Katerini. Solidaritza ahalegin askoren zerrenda egin dio *Red Pepper*-i.

Lehenik, herritar guztiei elikadura bermatzekoa: patata, olio, irin edo limoiak zuzenean ekoizleetatik herri-tarreganaino ohiko prezioen erdian iristeko sareak ugaritu dira. Ume askok etxean gosaririk ez daukanez, Gobernuari presio egiten zaio eskolek eskaini diezaieten otordua, 1950ko hamarkadatik gertatzen ez zena.

Osasun zerbitzuak pagatu ezinik populazioaren herena geratu denez, auzoetan ugaritu dira kontsultategi

txikiak, non mediku boluntarioek artatzen dituzten herritarrak, zenbait ospitale eta farmaziak eskainitako botikekin.

Okerrena daukatenak dira botika garestiak behar dituztenak, minbi-ziaren kontrakoak esaterako: “Ospitalean ere falta dira —dio Katerini— diru mozketengatik, azkenean gaixo larri horientzako ez dago kortisona baizik”. Hala ugaritu dira erruz suizidioak, batik bat dena galdu duten klase ertainekoetan.

Elikaduraz eta osasunaz gain, elkartasun sareak beste lau ataletan ari dira antolatzen: hezkuntza, kultura, lege aholkularitza eta ekonomia soziala. Trukeko merkataritza antolatu da hiri batzuetan. Horiek sustatzeko Syrizaren inguruan iaz 100 ekimen izan ziren lekuan aurtan 2.000 antolatu dira.

Katerini kexu da Estatuak oztopoak baizik jartzen ez dizkielako. Auzolaneko jantokiak antolatu dituztelarik, Gobernutik baimenak eskatu dizkiete, osasun baldintzen zertifikazioak eta beste: “Erantzuna zera izan zen, denok bildu eta sekulako otordu komunala antolatzea, non ehunka jendeak kozinatzen eta jaten baikenuen elkarrekin, ea ausartzen ziren denok atxilotzera!”.

Jendearen beldurra ezabatzea da elkartasun mugimenduaren beste helburua, agian nagusia: “Inork ez du sinesten Gobernuaren politikak zuzenak direnik, baina asko daude protesta egiteko beldurrez”. Krisiak luze joko die oraindik.

Kanpoko laguntza beharko dute. Nazioarteko brigaden beharra aipatzen hasi dira. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Oh, Catalunya!

KATALUNIAN bertako abertzaileen zentzu onak agindutakoa bete da: CiUk eta ERCk akordioa lortu dute, bai erreferendumaren data finkatzeko eta baita gobernagarritasunerako. Nazioaren aldeko hautua egin dute bi indarrek eta, Telesforo Monzonek esango zukeen moduan, Maltzagaraino bederen elkarrekin abiatuko dira. Azken 30 urteetan CiUk erakutsi du gai izan dela akordioak ia edonorekin lortzeko, salbu eta ERCrekin. ERCren azken hamarkadako hautuetan ere PSC hobetsi da CiUren aurretik. Eta egunerokotasunari begira hori zen bide logikoen agian, baina independentziari begira, eta hauteskundeetan izandako emaitzekin, orain lortu dute-na da bide bakarra.

Orain datorrenaz zerbait ezagutzen dugu euskal lurretan, oso testuinguru desberdin batean bazen ere, Ibarretxe planarekin hemen aski bizi izan baitzen Madrilan erantzunaz. Eta Rajoyren erantzuna gero eta gogorragoa izango da. Noraino?

Lehenik katalan subiranistek 2014ko kontsultarako legezko eremua prestatuko dute, babes demokratiko argia eraikitze-ko eta Europaren aurrean ere helduleku sendoa erakutsi ahal izateko. Moncloak orain arte ez du adierazi egoerari nola egingo dion aurre. Irailaren 11koaren ondoren, PP beldur zen azaroaren 25eko hauteskundeetan independentismoa haizatu zezakeen edozer egitearekin. Baina hauteskundeek ez zuten tsunami independentista berretsi, edo ez behintzat subiranista katalanek aurreikusten zuten moduan, eta orain Moncloak lasaiago eta gogorrago jokatzeko aukera zabala ikusten du. Nola?

ESPAINIAK tresna ugari ditu bere eskura, ekonomikoak, legearen esparrukoak eta politikoak. PPren gobernuak Espainiako Auzitegi Konstituzionalera eramango ditu Kataluniako kontsulta legea eta gisako guztiak. Konstituzionalak atzera botako ditu eta Kataluniako Gobernuak honen ebazpenak onartzen ez baditu, PP iritsi daiteke Artur Mas kargugabetzera, epaitzera edo Kataluniako autonomia bertan behera uztera. Euskal herritarrarentzat, musika doinu ezaguna, ezta?

Baina horiek azken tresnak lirarteke eta horren baldar jokatu aurretik badituzte bestelako bideak ere, esate baterako presio ekonomikoa. Kataluniak ez dituela betetzen defizit irizpideak? Moncloak isunak jar ditzake edo hitzartuak dituzten diru

EAEko herritarrak Kataluniaren independentziaren alde agertzeak zer esanahi luke? Eta Nafarroan zein sostengu lortuko lukete katalan independentistek?

transferentziak blokeatu, Masi arazo larriak sortuz. Eta muturrera joz, autonomia ere bertan behera utz dezake, PSOEek eta PPk 2010ean defizitaren inguruan Konstituzioan egindako aldaketak hori ahalbidetzen du eta.

Horrez gain, estatu batek dituen propagandarako tresna guztiak ditu, eta baita ere Kataluniako aliatu unionista eta autonomisten presio ahalmen handia (enpresa handiak, bankuak...).

KATALUNIAREN taktikaz ere zalantza ugari dago eta seguruenik Madrilgo mugimenduen arabera moldatu beharko da. Baina pentsa

ditzagun hainbat hipotesi. Bat, debeku eta mehatxuen aurrean, Masek ez du aurrera jarraitzen erreferendumarekin, eta Trantsizio Nazionalerako Kataluniako Kontseiluaren esku uzten du kontsultarena garatzea. Posible litzateke kontsulta sinbolikoa udalen bidez bideratzea, duela bi urte bezala. Partehartze handiarekin zilegitasun demokratikoa handia litzateke.

Bi, Masek ez dio kasurik egiten Konstituzionalaren debekuari eta, Parlamentaren legitimitatean oinarrituta, kontsulta antolatzen du. Ez da eszenatoki erreala, baina tira, ikusi beharko da baita ere zer gertatzen den Eskozian, eta hangoak Katalunian nola eragiten duen.


Hiru, debeku guztien aurrean, Kataluniako Legebiltzarrak independentzia aldarrikapena egiten du, Espainiak autonomia desegiten du eta Kataluniako Gobernuak Europako Batasunean bere estatus berriaren onarpen lasterketari ekiten dio.

Lau, Rajoyk eta Masek adostasuna lortzen dute Kataluniari buruzko erreferenduma Espainia osoan egiteko. Espainian zer aterako den argi dago, baina Kataluniak ere munduaren aurrean bere emaitza erakusteko aukera luke. Bide batez, interesgarria litzateke Espainiako Estatuko lurraldeetako emaitzak ikustea. EAEko herritarrak Kataluniaren independentziaren alde agertzeak zer esanahi luke? Eta Nafarroan zein sostengu lortuko lukete katalan independentistek? Politika fikzioa, bai, baina nork esango zukeen duela urtebete Katalunia egungo egoeran egon zitekeenik? ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Donostiako Aquariuma

4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

1



Erritmoa, kazetariaren batuta

Jexux Eizagirre Portillo

5 liburu opari

Hernani GIPUZKOA

www.kronika.net
www.dobera.com

2



Su haietatik ke hauek

Gipuzkoa: errausketatik zero zaborrerantz

Iñaki Petxarroman

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

3



Artez euskara zerbitzua

2013

5 urteagenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Egutegia 2013

5 ale opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2349. Argia)

A FUEGO NEGRO jatetxea

• Jose Mari Ilardui Garitano (Bergara)

IRUÑEKO PLANETARIUMA

• Carlos Javier Nieva Zardoya (Iruñea)
• Josu Mendicute Rodriguez (Eibar)
• Iñaki Gabilondo Millet (Leintz-Gatzaga)
• Andoaingo Udala Euskara Zerbitzua (Andoain)
• Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)
• Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)

OKATXU komikia

• Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)
• Usurbilgo Txistulari Taldea (Usurbil)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

• Martin Rezola Clemente (Gasteiz)
• Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
• Haritz Eguren Urrestarazu (Zerain)
• Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)

JOSERRA SENPERENA 10 trio CDa

• Iñaki Campos Hernandez (Iruñea)
• Pello Bastarrika Elorza (Azpeitia)
• Josu Belar Unamuno (Arrasate)
• Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)
• Miren Olabarria Arana (Bergara)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

